

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA



Epaiketa berria

Apelazio epaiketa asteazkenean eta ostegunean izanen da / 2-4

Inasa zenean industrialdea sortu dute: egun 7 enpresa daude, 240 langilerekin / 6

Trimaneko langileek bizi duten erabateko "ahaztura eta babesgabetasuna" salatu dute / 10

Gaur XXXI. Sakanako Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Arbizon (16:30) eta Lakuntzan (17:00) / 15

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren aurrekanporaketa saioetan egonen dira Granizo eta Karasatorre / 22



Igandean Altsasuko Krosa jokatu da, Nafarroako Kros Motza Txapelketa izango dena / 17

Sakanaoptika
Informazio gehiago: 948 563 824 • guaixeoptika@sakanako.com

* Kontuak promozioan dauden modelok

GAES
BARRAZAILE OFIZIALA

%40 arteko **DESKONTUA** AUDIFONOETAN

PROBATU DOAN audifonoak ebazan

2019ko Otsailak 28 arteko eskaintza. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin



Amaia Izko Espainiako Auzitegi Nazionalaren sarreran gurasoekin, epaiketaren egunean. UTZITAKOIA

Altsasuko auzia, 2. epaiketa

Altsasun 2016an izandako liskarra udaberrian epaitu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalan. Gurasoek esana: "epaiketa irabazi genuen, epaia galdu". Azken hori zuzentzeko apelazioak aurkeztu zituzten aldeek eta heldu den astean aztertuko dira

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Altsasuko auzia atzera ere, Espainiako Auzitegi Nazionalera bueltatuko da, asteazkenean eta ostegunean. Ordurako Adurrek, Jokinek eta Oihanek espetxean 801 egun eginen dituzte eta Aratzek, Iñakik, Jon Anderrek eta Julenek 231 egun (2016ko udazkeneko 37 egun egon ziren preso). 2 eta 12 urte bitarteko espetxe zigorrak jaso zituzten auzipetuek udaberrian izandako epaiketan. Epaietaz aritzeko Amaia Izko abokatuarengana jo du.

Lehen epaiketaren ondoren zergatik bueltatzen da Altsasuko auzia Espainiako Auzitegi Nazionalera?

Lehen instantziako epaitegi batek epai bat egiten duenean bigarren instantzia batek ikuskatzeko eskubidea dagoelako. Hori da, hain zuzen, apelazio baten bidez saiatzen dena. 2015era arte Auzitegi Nazionalak ebazten zituen epaiei helegiteak zuzenean Auzitegi Gorenarenean jarri behar ziren kasazio helegite baten bidez. 2015etik aurrerako kausetarako aldatu da eta horietako bat da Altsasuko auzia.

Beraz, 1. sekzioak emandako epaia errekurritu behar izan dugu Auzitegi Nazionalako Apelazio Aretorenean.

Zein izanen dira epaileak?

Berez, propio izendatutako apelazio areto bat da eta hor hiru epaile daude. Eloy Velasco orain arte Auzitegi Nazionalan instrukzio epaile izan dena. Enrique Lopez Lopez Auzitegi Nazionalan egondakoa da. PPK Konstituzio Epaitegirako magistratu izendatu zuen eta hara joan zen. Han kargugabetu zuten eta Auzitegi Nazionalera bueltatu zen.

Jose Ramon Navarro da hirugarren epailea, txostengilea. Epaile berria da, orain arte ez da Auzitegi Nazionalan aritu.

Esan beharra dago tribunal honekiko izan dugun hasiera ez dela oso egokia izan. Formalki jakinarazi ziguten beraiek instantziako epaileen modura haiek ere Guardia Civilak kondekoraturata zeudela. Horrek errekusazio bat aurkeztera behartu gintuen. Errekusazioa atzera botatzeaz aparte, akusatuei 3.600 euroko isuna jarri diete errekusazioa aurrera eramateagatik. Hasiera ez da sobera ona izan.

Zein izanen da fiskaltza?

Lehen instantzian izan dugun fiskal bera, Jose Luis Peral.

Zein izanen dira akusazio partikularrak eta herri akusazioak?

Berak. Bai batzuk bai besteak ez zuten helegite propiorik aurkeztu, baina fiskaltzak aurkeztutako helegiteari atxikitu zitzaizkion. Berez fiskalaren termino beretan errekurritzen dute.

Abokatu berak arituko zarete?

Bai, logikoa hori da.

Aurreko epaiketan bezala, honetan ere begiraleak izanen dira?

Amnesty Internationalek aurrekoan begirale batzuk bidali zituen. Oso modu argian ondorioztatu zuten han epaitzen zena ez zela inondik inora terrorismoa eta frogak ez zutela horrelakorik plazaratzen. Giza eskubideen aldeko beste erakunde batzuk ere gertutik jarraitu zuten epaiketa, esaterako, Fair Trails Europako Giza Eskubideen elkar-tea. Bi elkarte horiekin kontaktua izaten jarraitu dugu, eta giza eskubideen aldeko beste elkarte batzuekin ere. Baina, momentuz, inork ez digu konfirmatu epaiketara zuzenean behatzailerik bidaliko duenik. Dakiguna da arreta handiz eta gertutik jarraitzen dutela prozedura hau. Jarraitu zuten lehenengo instantzian eta apelazioan eta gaintzeko helegiteetan ere.

Auzipetuek auzitegian egon beharko dute?

Kasu honetan eskatu dugu saioak bideokonferentziaz jarraitzea. Apelazio bat denez, berez inork

ez du eskatu. Eta eskatuz gero ez dut uste onartuko zenik. Legeak ez du aurreikusten akusatuak, kasu honetan zigortuak (zigorra irmoa ez bada ere), hitza hartzea. Beraz, eskatu genuen ekiditeko euren dako traba izan daitekeen lekualdatze luze eta gogaikarri bat. Gainera, haiek, justu, azterketak egin behar dituzten momentuan dena. Ainararendako gauza bera eskatu genuen, lanean dagoelako eta bere lanerako traba ez izateko. Preso dauden mutilek epaiketa Zaballako espetxetik jarraituko dute eta Ainarak Iruñeko epaitegitik.

Apelazio epaitegian da auzia. Zer da zehazki apelazio auzitegi bat?

Auzitegi hau berria da. Epaitegi arruntetan apelazioak Lurralde Auzitegiak aztertzen ditu. Auzitegi Nazionalaren kasuan berezko areto hau sortu dute. Oso auzi gutxi aztertu ditu orain arte. Ez dago jakiterik zein diren bere lerro nagusiak. Baina Auzitegi Nazionalako areto bat da. Sistema horren barruan sartuta dago eta Auzitegi Nazionalak eskaintzen dituen berme berak eskaintzen ditu. Alegia, oso berme gutxi. Auzitegi Nazionala den moduan, beldur gara beste epaimahai politizatu, mediatisatu eta bideragarri bat izango ote den.

Zer dira apelazioak?

Apelazio batean egiten dena da zalantzan jarri epaiak jasotzen dituen egitateak edo lege-argudioak. Jada ez da lehenengo epaiketan bezainbeste eztabaidatzen frogan inguruan edo planteatu diren gauza guztien inguruan. Baizik eta epaiak jasotzen dituen baieztapenen inguruan.

Kasu honetan zalantzan jarzen da modu orokorrean frogari nahiko eta frogari sendorik ote dagoen jasotzeko epaiak jasotzen duen egitatearen kontakizuna. Epaiak baloratzen dituen frogak, alegia, deklarazioak eta bideo horretan oinarrituta egiten duten kontakizuna egingarria den ala ez. Hori da modu orokorrean guk



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com



Acrylcolor
SISTEMA BERRIA
KOLEOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Epaileak

Jaione
Carrera

Jose Luis
Galan

Eva
Gimbernat

Amaia
Izko

Jaime
Montero

Manuel
Olle Sese

Abokatuak

Espainiako Auzitegi Nazionala Apelazio Aretoa

2019ko ilbeltzaren 23an eta 24an

Fiskaltza




Jose Luis
Peral

Herri
akusazioa



Covite,
Ruben Mugica



Asociación Unificada
de Guardias Civiles

Akusazio
partikularra


2 guardia zibilenak,
Estatuko Abokatua



2 emakumezkoena,
Jaime Zuza

Auzipetuak

| Adur | Jokin | Oihan | Iñaki | Aratz | Jon Ander | Julen | Ainara |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Zigorra: 12 urte; 9 urte hiru lesio delituengatik eta 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik Egoera: 796 egun preso. | Zigorra: 12 urte; 9 urte hiru lesio delituengatik eta 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik Egoera: 796 egun preso. | Zigorra: 12 urte; 9 urte hiru lesio delituengatik eta 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik Egoera: 796 egun preso. | Zigorra: 10 urte; 6 urte hiru lesio delituengatik, 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik eta 1 desordena publikoagatik. Egoera: 226 egun preso (+37 20016an). | Zigorra: 9 urte; 6 urte hiru lesio delituengatik eta 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik. Egoera: 226 egun preso (+37 2016an). | Zigorra: 9 urte; 6 urte hiru lesio delituengatik eta 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik. Egoera: 226 egun preso (+37 2016an). | Zigorra: 9 urte; 6 urte hiru lesio delituengatik eta 3 urte agintearen agenteen kontrako delituagatik. Egoera: 226 egun preso (+37 2016an). | Zigorra: 2 urte; mehatxu delitua. Egoera: baldintzapean libre. |

planteatzen dugun eztabaida bat, alegatzen dugun zerbait. Gero, kasuan kasu aztertzen da bakoitzari zer frogarengatik leporatzen dioten parte hartze zuzena. Hori ere zalantzan jartzen da. Froga nahikoa ote dagoen hori oinarritzeko kasu bakoitzean. Alegazio anitzak dira baino denek helburu bera dute.

Gero planteamendu teknikoago batzuk daude non argudiatzen dugun sartu dizkieten astungarriak juridikoki ezin direla aplikatzen dituzten moduan aplikatu. Batez ere diskriminazioarena, taldean aritzearen abusua. Eta gero, planteatzen dira beste zera juridiko batzuk egiten dituzten lege kalifikazioen inguruan. Lesioak ere zalantzan jartzen dira. Benetan ote diren delitua edo gauza arina...

Denetariko alegazioak egiten dira, zalantzan jartzeko bai egitateen kontakizuna baita alegazio juridiko eta lege kalifikazioa ere. Argudiategi eta kalifikazio juridikoa.

Zein da fiskaltzaren eta, beraz, akusazioen apelazioaren zentzua? Egitateak terrorismotzat kalifikatu behar dira. Hori da fiskalak

planteatzen duen gauza bakarra. Berriz ere argudiatzen du epai-ketan argudiatu zuen gauza bera. Alegia, Altsasun gertatutakoa ez zela berez gertatu zena, baizik eta alde aurretik prestatutakoa eta planifikatutakoa. Alde Hemendik kanpainaren barruan. Alde Hemendik kanpaina hori ETak martxan jarri zuela eta ETak sustatu zuela. Azken finean, ETaren strategiaren parte bat dela.

Fiskalak berriz ere hori argudiatzen du. Epaiak jasotzen du egitateak zio ideologiko baten egitate egin direla eta horretan oinarritzen da. Eta hori terrorismotzat hartu behar dela dio. Zio ideologiko-politiko hori egoteak berak terrorismoarekin identifikatzen du. Lehen instantzian planteatzen dituen argudio berak planteatzen ditu. Gehi esan dizudan hori: zio ideologiko-politiko berdin terrorismoa. Argudiatzeko egitate hauek terrorismoa direla.

Guk horren aurrean ere alegazioak egin ditugu. Esaten dugu terrorismo kontzeptu hori berak defendatzen duela, baina nazioarteko kanonek eta Espainia-

ko legediak ez dutela inondik inora horrela ulertzen terrorismo delitua. Eta esaten diogu bere planteamendu horrek onartu behar dituela epaiak jasotzen dituen egitateak eta berak egitate horiek aldatu nahi ditu. Legeak dio hori fiskal batek edo akusazio batek apelazio batean ezin duela egin.

Lehenengoa entzun genuen epaietan, baina fiskaltzaren bigarren argudio hori azpimarratu nahi nuen. Bigarrena oso azpimarratzekoa iruditzen zait, zio ideologiko-politikoarena. Berez, baieztapen oso sakona, zuzenbidearen oso kontra eta, nire ustez, oinarri demokratikoen kontrako da. Hori da, momentu honetan, Auzitegi Nazionalako fiskaltza une honetan defendatzen ari dena, oso gauza arriskutsua.

Beste gauza bat da guk defendatuko dugula hau berez gertatu zela eta ez zeukala zio politikorik, baina epaiak baitez dio, bazuela. **Lehen epaietara joan aurretik abokatuak salatu zenuten makina bat proba atzera bota zizkizuetela. Horren inguruan iritzia eman behar-ko du epaimahaiak?**

Iritzia eman baino, epaimahai honek egin izan duena da froga horien zati handi bat onartu. Orain apelazioen erregulazio berriak aukera gehiago ematen ditu planteatu ahal izateko apelazio instantziaren aurrean froga. Kasu zehatz batzuetan. Eta kasu horietako bat da froga horiek lehen instantzian onartu ez badizkizute. Hori erabilia, orain apelazio aretoak onartu ditu alde aurretik planteatutako eta ukatutako zenbait froga. Batez ere lekukoak. Zenbait dokumentu ere, baina gutxi. Batez ere lekukoak. Gogoratu behar da Jon Anderren eta Julenen kasuan beraien defentsak aurkeztutako lekuko gehienak ukatu zituztela, argudiatu gabe, besterik gabe ukatu zituzten.

Horiek apelazio aretoak onartu ditu eta 23an eta 24an egingen dena izanen da, batez ere, froga horiek egin eta horien inguruko balorazioa. Ikusi dute gabezia hori. Egia delako lehenengo tribunalak froga horiek ukatu zituela argudio sendorik eta juridikorik gabe. Hori konpontze bidean apelazio aretoak frogak onartu ditu. Egingen dira eta gero

nahi dituen moduan baloratuko ditu. Deitu duten bista, batez ere horretarako da.

Nola daude egituratuta epaietako bi saioak?

Ez dakigu. Auzitegi Nazionalan azaldu digutenez, frogarena egingen da. Lekukoekin hasiko gara, haien deklarazioekin. Abokatuok eta akusazioek, denok dugu, nahi izanez gero, galderak egiteko eskubidea. Eta gero egingen da froga horren emaitzaren gaineko balorazioa, abokatuena eta akusazioen partez. Printzipioz hori izanen da dena. Ez dakigu, beraz, aurreneko saioan edo bietan egingen den, edo nola egingen den.

Epaiak noiz etorriko litzateke?

Ez dakigu. Legediak ez du epeirik zehazten.

Epaiak iritsi bitartean presoak aske gelditzeko aukera legoke?

Aukera egonen litzateke, noski. Baina, momentuz, ez dugu elementurik hori gertatuko denik pentsatzeko. Askotan eskatu dugulako askatasuna eta behin eta berriz ukatu digutelako. Baina ikusiko balute norbait absolbitzeko aukera handia, logikoa litzateke ahalik eta azkarren askatzea.

"Justizia egunen batean azalduko da gurean"

Altsasuko auzian auzipetuta daudenen gurasoak Espainiako Auzitegi Nazionalaren egoitzara bueltatuko dira asteazkenean eta ostegunean, apelazioen epaiketara. Beldurra dute. Itxaropena ere

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Epaiketa berriaren atean Altsasuko Gurasoak taldeko Antxon Ramirez de Aldarekin eta Gotzon Urritzolarekin elkartu gara.

Asteazkeneko eta osteguneko auzi saioetara joanen zarete?

Antxon. Bai, noski. Astearte gauean joanen gara eta asteazkenean han tinko ibiliko gara, entzuten, ikusten. Eta esperantzarekin, ea zer gertatzen den.

Zer moduz zaudete?


Gotzon. Beno, ba... Beldurrez. Bi urte pasa daramagu honetan. Eta benetan ikusita nola joan den prozesu hau bai epaiketaren aurretik bai epaiketaren ondoren, benetan beldurra dugu. Itxaropena, jakina. Zeren gure defentsak oso ondo prestatu eta aurkeztu dute, bai epaiketari bai orain helegiteekin. Itxaropen hori dugu, ea zertxobait on ateratzen den honetan.

Esperantzara kondenatuta?

A. Horrela bizi dugu. Horrela jarraituko dugu bizitzen. Noski.

Seme-alabak, zer moduz daude?

G. Presoak Zaballan daude, guztiak elkarrekin. Bisitetan eta aurrez-aurreko bisitetan irmo daudela ikusten dugu. Indartsu. Badakite daukatela herri eta jende askoren laguntza eta elkartasuna. Herriarendako eta jende guztiarendako eskerrak ematen dizkigute beti. Benetan, animoso daude. Gauza asko egiten. Itxaropena ez dute galduko eta ez dute galtzen. Baita ere, haserre daude. Zeren kasu hau berezia da eta injustizia galanta. Haserre daude. Baina irmo, indartsu eta herriarekin. Eta herria beraiekin.



Antxon Ramirez de Alda eta Gotzon Urritzola. ARTXIBOA

Zein jarrera dute epaiketarekiko? Zer kontatzen dizuete?

G. Momentuz, lasai daude. Zaballatik segituko dute. Defentsak eskatu bezala, ez da lekualdatzerik egin behar. Zer esaten diguten? Gu ere lasai egoteko. Esperantza puntu hori ez da galdu behar. Ea zer gertatzen den. Baita ere, pentsatzen dugu, ez dakigu noiz eta ez dakite noiz, baina justizia egunen batean azalduko dela gure eremuan.

Epaiketa iritsi bitartean, hainbat deialdi egin dituzte.

A. Ostiraleko bezala, 20:00etan, udaletxe parean kontzentrazioa egonen da. Epaiketa egunean 800 egun kartzelan izanen dira. Baina, ostiraleroko kontzentrazioak zenbat izanen dira? Zein meritua ostiraleroko jende asko biltzea. Herria ikusteagatik harro gaude. Handia da, benetan. Gaur, berriro, herria-

ren indarra jasoko dugu eta hara eramaten dugu, Madrilera. Aprobetxatzen dugu berriro eskertzeko. Eskerrik asko, Altsasu.

G. Apelazio bista honetan herriak nahi du beti gurekin egon. Beti sentitu dugu herria gurekin dagoela. Herria udaletxe parean egonen da igandean 13:00etan, Altsasuko herria gazteekin dagoela esateko. Injustiziaren aurrean planto egiten duela esateko. Eta mila esker.

A. Asteartean, 21:30ean, TV3k auziari buruzko dokumentala emanen du. Internet bidez lotu eta Iortia kultur gunean ematea pentsatu dugu. Herriari gonbidapena egiten diogu joateko eta elkarrekin dokumentala ikusteko. (Kultur gunean gonbidapenak).

G. Gaur eta igandean *Viudas* filmaren aurretik Joseba Salegiren film laburra emanen da.



2016ko azaroan egindako manifestazioa. ARTXIBOA

Sozialistek epai "proporzional eta justua" eskatu dute

PSNeko Altsasuko eta Arangurengo taldeak, Izquierda Sozialista korronteak eta 21 norbanakok sinatu dute

SAKANA

Altsasuko auziaren inguruko iritzia emanez manifestua plazaratu dute PSNko hainbat kidek, "gizarteak auziaren beste alde, iritzi desberdinak ezagut ditzan". Ziurtatu dutenez, "2016ko lastaileko gau hartan gertatutakoa arbuiatzen dugu", baina auzipetuendako "tratu justua eta berdintasunezkoa" eskatu dute. "Zigorgabetasunik ez, dagoeneko espetxean 26 hilabete daromatze, baina injustiziarik eta jatorriaren araberako diskriminazio traturik ezta ere".

Manifestuaren sinatzaileek Justiziaren erabakiekin "begirunetsuak" direla ziurtatzen dute, baina euren eskaririk gabe "neurrigabeak" dira eta, horregatik, "izan ziren gertakariei dagokien epai proporzionala eta justua" eskatu dute. Idazkia bere egin dutenek diote beti egon direla eta egongo direla indarkeriazko ekimenen kontra, biktimaren ideologia edo lanbidea dela ere.

Idazkiaren sinatzaileek diotenez, "iruditzen zaigu kasu honi eta sartuta dauden gazteei ematen ari zaien tratua antzeko kasuen guztiz desberdina da". Nabar-

rendu dutenez, "Autoritatearen kontrako ehunka eraso izan dira eta batean berean ere ez zigorrak, ez kalte ordainak ezta behin behineko espetxe egonaldia ez dira hain handiak izan".

Sinatzaileek aitortu dute euren eskaera auzipetuen senideekin bildu eta gero egin dutela. "Horregatik, justizia eta berdintasuna banderatzat duen sozialismo baten militante gisa idazten dugu hausnarketa hau, euren dako ere kontzeptu horiek eskatzeko". Ziurtatu dutenez, "2016ko lastaileko gau hartan gertatutakoa arbuiatzen dugu. Baina, aldi berean, zigorrak gehiegizkoak direla uste dugu eta, bidegabea deritzogu behin behineko askatasuna ez ematea".

PSNko zuzendaritza idazkari Ramon Alzorrizek adierazi du militante horiek Altsasuko auziari buruz esandakoa ez dela alderdiaren jarrera ofiziala, "baizik eta adierazpen askatasuna erabiliz adierazitako iritzi pertsonala". Alzorrizek gogoratu du alderdiak hasieratik salatu zituela bi guardia civilek eta euren bikoteek jasotako erasoak. Aldi berean, "iritziak iritzi" Justiziarendako errespetua eskatu du. +www.guaixe.eus

Auzibidearen hurrengo pausuak





ASTEKOA

MARIAN MENDIOLA BARANDALLA

Jendartearen “tasun” eta “keria”k

Aurrekoan, bilera batean, ogibidez, lanbidez eta jardutez fauna ezberdinetako kideak egin genuen topo, Euskal Herriko aferak gure osasun mentalean izan duen eta daukan eraginari irtenbide ezberdinak bilatzen ahalegindu nahian.

Abokatu eta preso ohi baten ahotik entzundako esaldi motz batek egundoko atentzioa eman zidan. “Jendartearen eta zenbait kolektibotan nagusitzen diren tasunak eta keriak” aipatu zituen. Esaldi horrekin, legegintzan aritua eta aditua den batek, psikologiaren gakoetako bat mahai gainean jarri zuen.

Bilduta geundenok, -keriak eta -tasunak jotako jendarte ondotoxoz ezagutzen dugu eta horiek ulertu nahian makina bat buruhauste izaten dugu. Eta hortxe ibiltzen gara psikologoak biak ala biak ulertu nahian, filia eta fobien bila ibiltzen garen moduan. Jendarte-fauna ulertzeko ezinbesteko ariketa da hori.

Bata zein bestea atzizkiak direla jabetu bezain pronto, -tasun eta -keriarekin erabiltzen ditugun hitzen bila jo nuen. Honatx aurkitu dudan zerrenda: berdintasuna, laguntasuna, adiskidetasuna, maitasuna, abiltasuna, alaitasuna, elkartasuna, aniztasuna, gizonkeria, harrokeria, handikeria, faltukeria, zorakeria, arrazakeria, indarkeria, ezkutukeria, bidegabekeria, agintekeria, bereizkeria, ustelkeria, koldarkeria eta abar. Irakurtzen ari bazara, segur aski, beste horrenbeste edo gehiago bururatuko zaizkizu.

Dena den, hitz samalda hori ez naiz gramatikoki aztertzen hasiko; adjektiboak, izenak, plurala, singularra edo dena delakoak bereizten, hobe baita jostuna jostera eta okina labera joatea. Dakidan bakarria da, gure baitan ditugun tasunak eta keriak direla horiek guztiak, psikologiatik begiratzeko modukoak. Horrela, lehenengoari (tasun), karga positiboa egotzen diogu eta bigarrenari (keria), negatiboa. Argi ilun honetan dantzatzen dugu egunero guzti-guztiok, batzuetan leian eta zalapartaka, besteetan, ez horrenbeste. Gure baitan dauden horiek identifikatzea da zailena, besteen buruan ikustea errazagoa da. Eta hortaz hain zuzen, Euskal Herrian legegintzan dabilzanek (goian aipatutako abokatuak kasu) ederto dakite, eguneroko ogia baita beraientzat.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoko: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

AHT-ren iruzurraren aurrean, mugitu zaitez!!!

SAKANA TRENAREN ALDE

Maiz galdetzen digute ea nola dagoen Abiadura Handiko Trenaren kontua (AHT aurrerantzean), eta erantzuna konplexua izaten da...

Kontuan hartzekoa da horrelako proiektuak urteetan zehar garatzen direla. Horrela izan da, esaterako, Arakilgo arau subsidiarioekin eta Izurdiagako tren iraganbidearekin, edo berrikiago Arbizuko konpostatze gunearekin, geldirik egon baitira denbora luzean. Horien gainean eragina zuen era batera edo bestera ibarreko eremu garrantzitsuetara txikizioa ekar dezakeen proiektu batek.

Garai honetarako, Iñigo de la Serna aurreko Sustapenerako ministro popularrak iragarri zuenez, Estatuko Gobernuak adierazi

beharko luke zein izanen den AHTk Sakanan izanen duen ibilbidea, ibarra zeharkatuz Gasteizen amaitzen dena, ala Ezkion amaitzeko Bakaikuren parean Aralar zulatzen duena.

Hala ere, José Luis Ábalos egungo ministro sozialistak, astiroago, Euskadiko eta Nafarroako gobernuekin trazadura adostu nahi duela dio, eta zehaztu du orain arte egindakoa berrikusi behar dela eta tren publiko eta soziala garatu. Alabaina, aurretik Nafarroan egiten ari diren AHTren lanek martxan darraite eta beste berri batzuk abiarazi dituzte, orain Nafarroako Erdialdean egiten ari direnak bezalakoak (Azkoien, Erriberri, Tafalla), edo berrikiago Iruñeko buklea kentzeko esleitutako ikerketa.

Horrela bada, egoera honen aurrean, larrialdiko kontua

da AHTren gaia eztabaida politikoaren ardatzean jartzea, xahuketa eta herritarrei egindako iruzur edo estafa erraldoia baita. Halaber, jada! egungo trenaren garapena aldarrikatzea, horixe baita pertsonen eta merkantzien garraioari egokien erantzuten diona. Horretarako ari gara borrokan, eta Sakana Trenaren Alde plataformatik oroitari nahi dugu hilabete hauetarako ekintzak prestatzen ari garela, beste talde batzuekin elkarlanean. Horrela, Tafallan elkarretaratze bat egingen da otsailaren 16an, larunbatean (Nafarroa mailako deialdia), eta ziurrenik Sakanan beste mobilizazio bat martxoaren 30ean. Zeu ere, AHTren aurka eta tren sozialaren alde mugitu zaitez!!!

OBJEKTIBOTIK

Bakaikun ondoak ilbeltzean atera dira!

Bakaikuko etxe bateko lorategian aurkitu dugu berria, ilbeltzean ere ondoak ateratzen dira.

Onddo berezi hauek ez dira, ordea, nahasian edo plantxan jateko aproposak, apaingarri moduan erabiltzea hobe izango litzatekeela deritzogu, egurrez egindakoak baitira. 30 cm-tako mokau ederra, benetakoak balira!



guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:
GK, Olatz Aldasoro Martinez de Ilardua
gk@gomunikazioa.eus

Administratzailea:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Raskin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Maria Saez de Albeniz Bregaña
publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK



Industrialdea sortu dute Inasa Foil zenetik

Bi urte eta erdiko lanen ondoren hutsik zeuden pabiloiak izatetik ekonomia jarduera duen industrialde bat izatera pasa da Inasa zena. Egun % 72ko okupazioa du. Zazpi enpresa daude, 240 langilerekin eta 140 milioi euroko fakturazioa dute urtero

IRURTZUN / ARAKIL

Arakil eta Irurtzungo alkateak, Lakuntzako eta Olatzagutiko alkateak, Sakanako Mankomunitateko presidentea, Goazen Altsasuko zinegotzi bat eta Sakanako Garapen Agentziako bi teknikarik. Ordezkaritza horrek harrera egin zion asteartean Nafarroako Gobernuarenari. Tartean zen Ekonomia Garapenerako lehendakariorde Manu Aierdi, eta beste hainbat. Irurtzun mendebaldean sortu den industrialdea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten guztiak.

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsa enpresa publikoaren bidez, duela bi urte erosi zuen lursaila, Irurtzungo eta Arakilgo Udalen eskariz. Zazpi milioi euro inbertitu ditu Inasa zena berrurbanizatzeko. 2,5 milioi euro zorua erosteko erabili ziren eta gainerako ia 5 milioiak urbanizazioa eta azpiegiturak egiteko: 2,2 milioi lanetarako, 700.000 euro elektrifikaziorako eta beste 600.000 euro zoruen deskontaminaziorako, besteak beste. Egun, bideratzeko zain dago industrialdeko azken egokitze lanetarako 1,4 milioi euro jarri dira. Nasuvinsak egindako inbertsioa salmentekin berdindu du, hala, hirigintza-eragiketa finantza oreka barruan egin da.



Sakanako udal ordezkariak eta garapen agentziako kideak industrialdean.

Jose Mari Aierdi Fernandez de Barrenak, Nasuvinsako zuzendari kudeatzailea, aurreratu zuen bizpahiru hilabetetan urbanizazio lan guztiak despedituko dituztela.

Industrialde berria bi udalerritan banatuta dago. Irurtzungo zatia (100.000 metro karratu) esan bezala, lanak aurreratuta daude. Eta autobiarene ondoan dauden Arakilgo zatiaz (45.000 metro karratu) galdetuta, Nasuvinsako buruak aurreratu zigun heldu den astean partzelak ze-laitzen hasiko direla. “Aurretik

kutsadura kentzeko lanak egin ditugu. Urte bat daramagu horretan. 600.000 euro pasa gastatuko ditugu kutsadura hori kentzen. Gutxi gorabehera, bi hilabete barru garbi geldituko da”. Aierdik aitortu zuenez, lursail horiez galdezka “oraindik ez” da enpresarik joan, “baina batzuk hor kokatzeko baldintzez galdetzen ari dira”.

Nasuvinsak industria birsorkuntzarako jarduera bat egiten duen estreinako aldia da Irurtzungoa: erosi, berrantolatzeko berriro urbanizatu, birgaitzeko

zoruetako kutsadura kendu, zuen narriadura-egoerari aurre egiteko azpiegituren zatikako berrerrabilpena eta eskualdearendako garapen-bideko ekonomia esparrua, industrialdea, sortzea.

Lehendakariordea

Irurtzungo proiektuaren garrantzia nabarmendu zuen Aierdik: “jarduketa paradigmaticoa da”. Gaineratu zuenez, “etorkizunera begira espektatiba onekin gaude. Faltatzen diren partzela txiki horiek, nik uste, datorren hilabeteetan ziurrenik bete egingen dira”. Lehendakariordeak azpimarratu zuenez, “halako helburuak daudenean, nola lerrokatzen diren udalak (Arakil eta Irurtzun), Sakana eta Nafarroako Gobernuo hainbat erakundeak (Nasuvinsa, Sodena, Nafar Lansare...). Denak batera jartzen garenean fruituak jasotzen dira. Hemen daude”.

Gobernuo kidea industrialde berean 2016ko azaroaren 11n izan zen eta orduan esan zuen ibarrean industria-lurrik ez zegoela. Horretaz galdetuta, Aierdik “hemen sortu dugu” erantzun zigun, gaineratuz: “Sakanan beste lekutan lanean ari gara eta garaia denean aurkeztuko dugu. Altsasun gauza bat saiatzen eta bultzatzen ari gara. Nafarroako Gobernuaren helburua hori da: industria lur faltarik ez egotea. Horrek inbertsioa esan nahi du eta hori batzuetan, kostatzen da lortzea. Dirua bukatzen da eta beti aukeratu behar duzu”.

Zazpi enpresa

Aierdi lehendakari ordeak esan zuenez, “hirigintza-jarduketa horrek enpresa berrien ezarpena erraztu du, krisialdian lan-

gabeziak gogor zigortu duen eskualdean. Industrialdea ibarreko ekonomiaren “erreferentzia” izan dela esan zuen. Aitor Larraza Carrerak, Irurtzungo alkateak, esan zuenez, “urbanizazio guztia egin da, enpresa berriak sartu dira, aktibitatea dago eta hori oso garrantzitsua da eskualdearendako”.

Larrazak nabarmendu zuenez, “hartutako erabakiagatik hemengo hiru enpresa garrantzitsuk arnasa hartu dute: Hydrok, Manfisak eta Sapremek. Euren jarduna aurrera eramateko eta euren baldintzak hobetzeko balio izan du industrialdeak”. Bi enpresa berri kokatu dira industrialdean: Puertas Dile (50 langile), dagoeneko lanean ari dena eta Embalajes Breton lan-tegia eraikitzen ari dena. Transportes Plazaola eta Construcciones Apezetxea enpresek bertan finkatzeko konpromisoa gauzatu dute. Bi enpresari ere industrialdean lurra eskaini zaiela jakinarazi zuen alkateak.

Larrazak galdera egin zuen: “UPNk 2014an zergatik ez zuen hau egin? Bai Irurtzun, bai Sakana degradatutako eskualde bihurtu nahi izan zuen”. Inasa enpresaren lurak industrialde bihurtzeko erabakia “eskualdearendako ona” izan dela berretsi du Irurtzungo alkateak, “orain aukera zabalak daude”. Bestalde, Arakilgo alkate Patxi Uhartek Garrok esan zigun eurek Nasuvinsarekin Irurtzungo Udalak baino bilera gutxiago egin

DATUAK:

140.000 M² GUZTIRA
110.000 M² INDUSTRIA
80.000 M² ERABILTZEN
30.000 M² HUTSIK

Saioa 10:00 – 12:00

10:00 Egun on, prentsa eta eguraldia

10:15 Eguneko agenda

10:20 Albistegia

10:45 Eguneko elkarrizketak

11:20 Sarea: Karrape eta Aralar irratiko esatariekin

11:55 Saioarene bukaera



107.3 FM
beleixe
 guaix.eus-en ON LINE
 Denboraldi berria

dituztela. “Horregatik, informazio gutxiago dugu”. Badakite Arakilgo 45.000 metro karratuko zatian kutsatutako lurrak garbitzeko lanak egiten ari direla eta Saprem enpresaren handitzeak Irurtzungo zati txiki bat eta Arakilgo handiago bat hartuko duela, baina gutxi gehiago. Uhartek azaldu digunez, asteartean elkartuko dira Nasuvinsako buruarekin eta orduan jakinenu dute noiz eta nola urbanizatuko duten. Urbanizazioaren kostuaren %10eko zerga diru sarrera izanen da Arakilgo Udalarendako.



Larraza eta Aierdi hizketan.

Digitalizatorako espazioa

Inasako bulego eraikin nagusia Irurtzungo Udalarena da. Sakanako Garapen Agentziarekin (SGA) batera ibarreko enpresek digitalizazio arloan dituzten beharrak lantzeko espazio bat hartuko du, Sakanako Digitalizazio Estrategian toki esanguratsua hartuko duena. Larrazak gogoratu duenez, SGAK “20 enprekin egindako ikerketa baten ondoren, enprestatik ateratako beharrak espazio honetara bideratu nahi ditugu”.

Lehen solairuan izanen da, 500 metro karratuko azaleran. Irurtzungo Udalak eta Nasuvinsak, erdibana, solairua txukunduko dute. Udalaren zatian, dagoeneko, hasi dira ikerketara eta garapenera bideratutako gelak prestatzeko lanak. “Apirilerako bukatuko dira lanak. Eta enpresek eskaerekin bete behar dugu proiektu hori”. Eta hori egiteko alkateak argi du “ate guztiak jo behar dira. Nafar Lansarerekin, Nasuvinsarekin eta Ekonomia



Udal ordezkariak eta garapen agentziako kideak bulego eraikinean.

eta Enpresa Politika eta Lan arloko zuzendari nagusi Izaskun Goñirekin lanean ari gara proiektua gauzatzen”. Beste zatian prestakuntza eta erabilera anitzeko gelak egiten dira. Nasuvinsako zuzendari-kudeatzaileak berretsi zuen hori eta enpresa mintegi bat sortzeko lanean ari direla gaineratu zuen.

Sakanako digitalizazio proiektua “polita” dela esan zuen lehendakarioordeak. “Digitalizazioa oso erronka

garrantzitsua da. Nafarroan nahiko enpresa bide horretan daude. Handienak. Txikiak edo ertainak bide horretan lagundu behar ditugu”. Iruñean, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ondoan, digitalizazioa, adimen artifiziala eta bioteknologia esparruak bultzatzeko zentroa egin asmo dutela gogorarazi zuen Aierdik. Hala ere, “Sakanakoa, edo beste lekuetan sortzen diren ekimen txikiak izpirituan onarekin aztertuko ditugu, jakina”.



Manterola (SGA) eta Irigoien (Sodena).

Plan Estrategikoaren berrikuspena aurrera doa

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) 2014-2020 Sakanako Plan Estrategikoa (SPE) berrikusteko prozesua abiatu zuen azaro akaberan. Orain arte egindakoak eta lortutakoak aztertu, behar berriak identifikatu eta 2020ra bitartean nola hobetu, hori da SGAK lortu nahi duena martxan duen prozesu horrekin. Sakan-darren iritziak jasotzeko abenduan hiru jardunaldi ireki egin zituzten. Orain hainbat sakan-darri eta elkarteetako ordezkariak elkarrizketak egiten ari dira.

SGAko kideak Nafarroako Parlamentuan dauden taldeekin biltzen hasi dira. UPNrekin eta PSNrekin izan dira dagoeneko. Nafarroako Gobernuarekin ere bildu nahiko lukete. Udal ordezkariarekin ere elkartu nahi zuten, baina legegintzaldi bukaera denez, hauteskundeak pasa ondoren udal berrietako kideekin udan elkartzea erabaki dute. Aldi berean, Bakaikun herriko etorkizuna irudikatzen egindako prozesuen modukoaren garrantzia nabarmendu dute.

Irurtzun eta hirigintza

Nafarroako Gobernuaren jabetza dira Trinitate kalearen goiko aldean dauden bi bulego (basozainak eta abeltzaintzari lotutakoa) ditu. Horietaz galdetuta, Nasuvinsako buruak esan zigun Irurtzungo Udalarekin hizketan ari direla: “prest gaude basozainak industrialdean kokatzeko. Aukerak aztertzen ari gara. Sarrerako eraikinean edo

beste partzela batean. Sarrerakoan nahi dugu udalak eta guk. Basozainen bulegoa hona ekarriko dugu, ziur”. Aipatu bulegoen parean kamineroen etxeak eta inguruko zelaia (7.000 metro karratu inguru) daude. Aierdik jakinarazi zuenez, “udalak urbanizatu etxebizitzak eraiki nahi lituzke. Aztertzen ari gara Irurtzunen zein eskaera



Industrialde sarrerako eraikina.

dagoen, alokatzeko edo saltzeko lirategiaren... Ikusiko dugu zein aukera ditugun”. Eta, gaineratu zuenez, “gu prest gaude kaminerorendako ere partzela bat prestatzea industrialde honetan. Eskaera balego, Irurtzungo Udalaren eta Nasuvinsaren arteko hitzarmen batekin aurrera eramatea posible litzateke”.

Txooooo!tx!

JUANLUZENA

SAGARDOTEGIA

URTARRILAREN 19TIK MAIATZAREN 5RA ARTE
txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ



Etxarri Aranatz bertan errotera animatzen murala.

Dendari, ostalari eta zerbitzariendako trebatze saioa

On-line bidezko baliabideen inguruko saioa asteartean izanen da, 15:00etatik 17:00etara, kultur etxean

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Udalan argi dute: “gaur egun funtsezkoa da enpresa eta zerbitzu txikiek on-line presentzia egokia izatea, eta oso tresna errazak eta baliagarriak daude mezu komertzialak zabaltzeko eta edukiak argitaratzeko”. Horregatik, herriko dendari, ostalari edo zerbitzuetako arduradunak eta langileak prestakuntza saioa batera gonbidatu ditu, Etxarri Aranazko dendariak, ostalariak eta zerbitzuetako langileak “on-line bidezko baliabideak ezagutu eta oinarritzko erabilera egiteko aholkularitza jaso” ditzaten.

Udaletik jakinarazi dutenez, Nola ziurtatu zure merkataritza-presentzia on-linen, saiakeran hil gabe saioa doakoa da. Bi orduz “ariketa praktikoak eginen dira eta joaten direnak helburu horiek lortzeko aholkularitza pertsonalizatua jasoko dute”.

Mireia Jimenez Lopez izanen da saioaren gidaria. Bera marketingean graduatua, coach, community managerra eta merkatariza-banaketaren kudeaketan espezializatuta dago, besteak beste. Saioa ele bitan izanen da.

Udaletik jakinarazi dutenez, saioaren helburua da “hurbileko ostalaritza, zerbitzuak, denda txikiak eta enpresak sustatzeko asmoz antolatu dugu”. Antolakuntzan Laboral Kutxaren eta Sakanako Dendari, Ostalari eta Zerbitzuen Elkartearen laguntza izan du udalak.

www.etxarriaranatz.eus

Etxarri Aranazko Udalak jakinarazi du otsailen web gune berria mustuko duela. Haren ataletako bat herriko zerbitzuei buruzkoa izanen da. Udalaren web orrian bere denda, ostalari edo zerbitzuarri buruzko datu gehitu nahi dutenek udala@etxarriaranatz.eus e-posta bidez jarri daitezke udalarekin harremanetan.

Bestalde, Txaigorriko eta Gokolako pagadian Etxarri Aranazko Udalak bakanketa egin nahi du eta ateratzen den egurra saldu. 80-100 urte arteko pagoak dira udalak enkantean saldu dituenak, guztira 1.960 metro kubo zur egiten dutenak. Baso-erprobetxamendu horrengatik 13.720,32 euro eskatzen zituen Etxarri Aranazko Udalak baina Kataliturri SL enpresak 20.482 euroren truke erosi du; hasierako prezioa baino 6.761,68 euro gehiago pagatuz.



Kafe Konponduko saio batean.

Konponketak, harremanak eta kafea, denak batera

Kafe Konpondu saioen bidez hautsitako etxeko objektuei bigarren bizitza ematen zaie

ETXARRI ARANATZ / BAKAIKU / OLAZTI Batuta elkarteko kideak, Sakanako Mankomunitatearen Hondakin bilketa Zerbitzuaren laguntzaz, Kafe Konpondu ekimena herri herri ezagutarazten segituko dute heldu den astean. Olatzagutiko kultur etxean asteartean izanen dira, Bakaikuko elkartean asteazkenean eta Etxarri Aranazko kultur etxean ostegunean, 18:00etatik 20:00etara.

Elkarteko kide Javi Bergarak Beleixe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) azaldu duenez, gauzak konpontzen dakiten jendea eurek jartzen dute. Haiek lanean jartzeko gauzak konpontzeko premia duten pertsonak behar dira. “Bi orduko saioak dira. Jendea bere gauzak konpontzera etortzen da, konponketan laguntza ematera edo gauzak nola konpontzen diren ikustera”. Saioetara joaten direnak bere objektua konpondu ondoren joateko edo gelditzeko aukera dute. Kafea eta pastak ere badaude. Bergarak irratian aitortu duenez, “ez gara magoak. Badira konpondu ezin ditugun gauzak. Edo, agian, pieza bereziren bat behar du. Guztia zabaltzen dugu eta ezin badugu konpondu, arazoaren diagnostikoa duzu, berarekin zer egin erabakitzeko”.



Andra Mari ikastola. ARTXIBOA

Andra Mari ikastolak 50 urte beteko ditu aurten

“Urtemuga merezi duen bezalakoa izan dadin” hainbat ekimen izanen direla aurreratu dute

SAKANA

Euskal Herri osoan barna mugimendua zabaltzen ari zen eta haren aditzera Etxarri Aranatzera ere iritsi zen. Ikastola. Gainera, Nafarroako orduko Diputazioan euskararen aldeko jarrera zegoen. 1969a zen eta dozena bat ikaslerekin Etxarri Aranazko eskola zaharretan abiatu zen Andra Mari ikastola. Aurten, beraz, 50. urteurrena ospatuko du.

Ikastolatik jakinarazi dutenez, aurten mende erdiko ibilbidea “egoki ospatzeko, hamaika jarduera iragarri ditugu: batetik, logo eta lelo berriak mustuko ditu, Ekin eta segi lelopean gauzatuko baitira aurten aurrera eramanez ditugun hainbat ekimende”. Azken horietako batzuk aurreratu dituzte: herri bazkari erraldoia, kontzertuak, zuhaitz landaketa, arropa berria, Beietz taldeak urteurrenerako konpasatutako abestia, omenaldiak, ikastolaren festa berezia, hitzaldi zikloa... Dagoeneko iragarri dute hitzaldi bat hilaren 24rako, osteguna. Arrasateko Arizmen-di ikastolako berrikuntza pedagogikoen arduradun eta konfiantzaren pedagogian aditua den Amaia Anterok hitzaldia emango du, 18:30ean ikastolako HH eta LHko eraikinean.

Sakandar ugari Bilbon euskal presoek eskubideen alde

Orain Presoak dinamizak Bilbon deitutako manifestazioarekin. Haren akaberan dinamizaren bozeramaileek Pedro Sanchez presidenteari emandako hitza bete eta salbuespeneko espetze politikari lehenbailehen akabera emateko eskatu zioten. “Presoen korapiloa askatzeko” garaia dela jakinarazi zuten. Gaztigatu zuten “hauteskunde urteak espetze politika gizarteratzeko balizko erabakiak arriskuan” jar ditzaketela.

Agintariak mugitzeko gizaratek presioa egiten segitu behar dela gaineratu zuen. Akaberan ere Altsasuko auzipetuek gogoratu eta elkartasuna adierazi zieten eledunek.

Pentsiodunen aldarrikapena kalean segitzen du

Sasoiak eta Nafarroako Pentsionistak Martxan erakundeek deituta astelehen eguerdiko kontzentrazioak egiten dira Altsasun. Hurrengoa udaletxe parean da. Hauteskunde garaia dela eta pentsiodunen aldarrikapena “muskulua erakusteko garaia” dela uste dute. “Hautagaitza guztiek gure eskaeren berri izateko ahalegina egin behar dugu”. Ez dute mobilizazioen bat egitea baztertzen. Eta eskaerak egoki egiteko argudioz hornitu beharra dagoela gaineratu dute eta otsailaren 12an hitzaldia izanen dela Altsasun. Bestalde, Otsailaren 22ko plataformak, momentuz, ez du bilkurarik eginen. Lanean segitzen dute.

Parlamentuak alderdien kontrako mehatxuen salaketa

Nafarroako Parlamentuko Bozeramaileen Batzordeak erakunde-adierazpena onartu du eta haren bidez UPNren, Geroa Bairen eta EAJren kontra pasaden astean egindako mehatxuak “irmoki gaitzetsi eta arbuia” ditu. Joan den astean Iruñeko Maravillas gaztetxearen itxieraren kontura pintaketak egin zituzten Altsasuko batzokian.

BIKAIN GARAJEA, S.A.L.
948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

Mekanika Elektrizitatea Txapa Margotzea



Mintzakideak euskara praktikatzen.

Euskararendako bidelagunak behar dira Sakanan

Euskara ikasten ari direnekin astean behin ordu batez elkartu eta hizketatzean datza

SAKANA

Mintzakide programan euskara ikasten ari diren 83 sakandarrek eman dute izena. Euskaraz hizketatzeko erraztasuna lortu, ikasitakoa praktikatu edota lortsa galtzeko eman dute izena Mintzakiden. Euskara ikasten ari diren edo hizketatzeko soltura galdu duten lagun talde txiki bat osatzen da eta haiekin bidelagun bat izaten da. Azken horren egitekoa taldeko elkarriketak bideratzea da. Astean behin, ordu batez. Berdin da tabernan izan, pasiatzen, zinetik atera berritan, mendia buelta eginez... taldeak erabakitzen du eguna eta ordua. Eta gero praktikatzera. Doako programa da eta izen ematea ikasturte guztia zabalik dago.

Mintzakideak daude Irurtzunen, Arakilen, Ihabarren, Arbizun, Iturmendin, Urdiainen Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian.

Euskaraz hizketatu nahi duten horiei lagundu nahi dietenak bidelagun izan daitezke. Interesa dutenak AEKren Itsasi euskaltegitik (Gartzia Ximenez, 46, Altsasu) pasa daiteke edo 600 482 024 telefonora hots egin dezake. Jakina, euskara praktikatu nahi dutenek ere harremanetarako bide horiek erabili ditzakete izena emateko.



Sakanan greba feminista prestatzeko eta koordinatzeko bilera egin zuten herenegun Etxarri Aranatzan. UTZITAKOIA

Greba feministarako prestaketa hasi da

Greba feminista "emakumeok sufritzen dugun indarkeria puntu desberdinetatik aztertzei aukera izanen da". Egitekoak zehazteko hurrengo batzar irekiak hilaren 30ean izanen da, 18:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

SAKANA

Euskal Herriko mugimendu feministak grebara deitu ditu emakumezkoak, transak eta bolleroak martxoaren 8an. Mugimenduak jakinarazi duenez, grebak bost ardatz izanen ditu: ikasketak, enplegua, kontsumoa, pentsioak eta zaintza. Joan den urteko grebarekin alderatuta ardatz bat gehiago izanen da, pentsioena, greba feminista bizitzako esparru guztietara iristen delako.

Baina ardatz nagusia zaintzarena izanen da. Itun sozial berri bat eskatu dute mugimendu feministatik "bizitza sostengatzeko ardura kolektiboa eskatzen dugu, pertsonen zaintza ez dabil zapalduen bizkar gelditu. Horretarako etxeko lanetan eta zaintza lanetan dabilzan emakumeekin aliantzak sortu, estutu eta indartu nahi dituzte. Aldi berean, "etxeko langileen esplotazioarekin aberasten diren enpresa banpiroak seinalatzeko eta administrazioaren ardura-

gabekeria salatzei" deia egin dute. Greba egunean gizonaek zaintza lanez arduratzeko eskatu dute mugimendutik.

Ibarrean

Sakanan dagoeneko hasi dira deialdia prestatzen. Altsasuko Mugimendu feministako kide Eider Leozek esan digunez, joan den urteko martxoaren 8aren

inguruan emandakoa "pauso handia izan zen. Baina, egia esan, urte asko daramatzagu emakumeok borroka horretan". Mugimendu feministak emakumeak planto egitera deitu zituen joan den urtean: "denok, egunerokoan, ikusten ditugu emakumeok sufritzen edo jasaten ditugun hainbat eraso (ekonomia eredu, indarkeria matxista,

arrazakeria eta patriarkatuaren kultura), eta ditugun aldarrikapenak". Guztiak kaleratu zituzten pasa den urteko greba feministan.

Eta "balorazioa hain positiboa izan zen aurten ere grebara deitzen dugula. Aurten, gainera, apustu handiago batekin: 24 orduko greba". Izan ere, 2018an deialdia egiteko arrazoiak ez dira desagertu. Martxoaren 8a begira, Sakanan, eta herriz herri, mugimendu feminista sare-tzen ari da, arlo bakoitzean plangintza propioa emateko. Joan den urtean herrietako emakumeak elkar ezagutzeko balio izan zuen eta harreman hori berpiztu dute. Ibarreko feministak grebaren zergatiak diren gaiak lantzen hasi ziren elkarrekin asteazkenean. Batzar irekian irintarrak, uhartearrak, arbizuarrak, etxarriarrak, urdiaindarrak, altsasuarrak eta ziordiarrak elkartu ziren, 15 guztira.

Grebaren Nafarroako koordinazio bileretara joaten diren arbizuarrak, etxarriarrak eta altsasuarrak grebari buruz duten informazioa zabaldu zuten. Informazioaz aparte, batzarrean parte hartu zutenek Sakanan zer egin, nola antolatu, ibar mailako erantzuna emanen den, elkarrekin zerbait egingen den, herrietan elkartuko diren eta bestelakoak mahai gainean jarri zituzten. Jakinarazi digutenez, martxoaren 8an Sakanan bi mobilizazio egitea erabaki zuten, bai goizean, bai arratsaldean. Baina ez zuten zehaztu zer egingen duten eta non. Grebaren aurretik emakumezkoek herrietan egin ditzaketen hainbat ekimen zerrendatu zituzten, mahai gainean utzi zituztenak aurrerago zehazteko.

Kaixo
Kafetegia- Jateketa

RESTAURANTE KAIKO BAR-CAFETERIA

GARCIA XIMENEZ 20-22
948.46.91.24 ALTSASU
www.restaurantekaixo.com

www.pescaderiamariaeugenia.com
Arratsaldez zabalik

maríaeugenia
Arrainak

Lortu deskontuak gure txartelarekin!

Unai: 607 804 316 / Olaia: 678 564 722
El Ferial, 1 • 948 467 950 / Isidoro Melero • 948 467 725



Trimán Minerals SAU enpresako langileek Nafarroako Justizia Jauregia eraman zuten euren protesta asteartean. UTZITAKOA

SAKANA

Trimán Minerals SAUko langileak euren egoeraren arduradun Jose Luis San Segundo Perez egin zuten, Trimán, Saher 2000 SL eta Moncayo Real State SLU enpresen arduraduna. Epaitegiaren atean adierazi zuten, “enpresa multzo ilun horren helburu bakarra garai onetan gure kontu aberastea da eta garai txarretan bere zorren ordainketa ekiditea”. Irabaziak Moncayo Real State SLUk jasotzen omen zituen eta “gauzak gaizki joan direnean Trimáneko langileak gara zordunak”.

Enpresak langileei, batz beste, jada 12 nomina baino gehiago zor dizkietela salatu zuten. 2017ko abenduko estra kobratu gabe hasi ziren. Langileei etxean egoteko lizentzia eman zien enpresak apirilean. Aurretik hiruzpalau hilabete egona ziren enpresara joaten baina lanik egin gabe. Ez kobratzeak langileengan eragina izan du: “batzuk alokairua pagatzerik ez, hemendik joan eta batzuk gurasoen etxera bueltatu dira, besteak beste herrialde batera bizitzera”.

Gaur egun 45 langile daude. Duela 8 urte 2.050 langileko enpresa bat zen eta pixkanaka murriztu joan da kopurua. Egoera hori hasi zenean 70 bat ziren. “20 inguruk ezin izan diote egoerari eutsi. Lan egiteko premia izan dute eta utzi behar izan dute. Haiek kontua eskatzean paperik, kalte ordainik eta abarrik gabe gelditu dira”. Altsasun

Trimánen salaketa

Trimáneko langileek “instituzioengandik, justiziarengandik eta administrazioarengandik bizi” duten “ahaztura eta babesgabetasuna” salatu zituzten Nafarroako Justizia Jauregiaren parean egindako kontzentrazio baten bidez asteartean

18 langile dira (Asturiasen eta Iruñean besteak).

Atzera begira

Langileek azaldu zuten, jabeak hainbat azpiegituren jabetza eskuz aldatu zuen 2016ko udaberrian. Esaterako, Altsasuko lantegia eta makineria Saher 2000 SL enpresari saldu zion. “Eta beste hainbat operazio ilun egin zituen. Horien legezatasuna zalantzan jarri dituzte kontu-hartzaileek”. Langileek ez dakite zein helbururekin egin zituen operazio horiek, bai ordea haiendako “ondorio larriak”

**LANGILEEI, BATAZ
BESTE, JADA 12
NOMINA BAINO
GEHIAGO ZOR DIZKIE
TRIMÁNEK**

dituela. Argi dute enpresariak saiatu direla “denbora pasarazten eta bi urteko epea lortzeko eta hainbat epe pasatzen uzteko. Horrela, hartzekodunen konkurtsoko administrazioaileak ezin du atzera bota bi urteko muga baino zaharragoak diren operazioak, esaterako, 2016koak”. Bi urte pasata, etorri zen Enplegu Erregulazio Espedientearekin (EEE)”. Langileen iritziz enpresak “iruzurra” egin du. Gaineratu zuten, enpresako arduradunak oraindik ez ditu 2017ko kontuak erregistratu.

Gogorazi zuten, Sodenak Trimáni 1,6 milioi euro eman zizkion Aljerian zuen kontratu bat gauza zezan. “Gaur egun diru publiko hori galdu da, enpresa itxi da, eta Sodena zordunen ilaran kokatu da”.

Enpresa hartzekodunen konkurtsoan dago garagarriaren

setik. Orduan abiarazi nahi izan zuten EEE. “Gauzak ongi egin behar zirela” eta langileek ez zuten sinatu. “Irailean beste saiakera bat egin zuten baina kontuak auditatu gabe zituzten. Dokumentazioa falta zen eta formak ez zituzten bete. Ezin genuen negoziazioa aurrera eraman”. Hirugarren saiakeran hasi ziren EEE negoziatzen. Baina langileek Merkataritza-erloko Iruñeko 1. epaitegira jo zuten lastailaren 10ean. Epaileari hiru enpresen talde izaera onartzeko eskatu zioten, taldeak Trimánen zorra onar zezan.

**"HAINBAT OPERAZIO
ILUN EGIN ZITUEN.
LEGEZKOTASUNA
ZALANTZAN JARRI
DITU KONTULARIAK"**

“Gure ustez Trimánen ezin du taldeak sortutako zor guztia ordaindu. Zorra Moncayo Real Staterena da”. Hala eginda enpresarendako egon zitezkeen alternatibak aztertzeke aukera egon zitekeela nabarmendu zuten.

Epaia

Langileek asteartean jakin zuten epaitegiak ez ziela arrazoirik eman. Salatu zuten, “epaileak langileen beharren gainetik enpresa eta kapitalaren interesak jarri ditu”. Hala ere, ebazpena aztertu eta ekimen berriak egitea ez dute baztertzen. Bitartean lastailaren 30etik etenda zegoen EEEren kontsulten epea martxan jarriko da berriro. Horrek langileen kaleratzea esan nahi du. Negoziazio horretan kaleratzerakoan langileek jasoko duten kalte ordaina, horiek pagatzeko bermeak eta abar negoziatuko dituzte. Langileak “ezkorragara, azken eskaintzan legez ezarritako gutxienekoa eskaini baitzuten”. Garagarriean egindako manifestazioan alternatibak bazeudela azaldu zuten. Orduetik “denak galdu egin dira”. Langileak orain kontratua dute, ez dute kobratzen, ezin dute langabezia kobratu, ezin dute inon lan egin (horren alde eginez gero etorkizunean arazoak izan ditzakete), inork ez ditu kaleratzen eta ez dute soldatarik jasotzen. Langabezia gelditu nahi dute beste tokiren batean lan egin ahal izateko.

Langileek salatu zuten, Sodenak eta Nafarroako Gobernuak “lan egiteko eta gure zorrak kobratzeko dugun eskubidea” ez zituzten babestu. “Iruzur horren aurrean, guztion den dirua berreskuratzeko zer egin beharko duten azaldu beharko dute”. Hartzekodunen konkurtsoan aritu den Moor Stephens administrazioailearen jarrera ere kritikatu zuten: “ez dute bere lana behar den bezala egin, Trimánen dituen existentzien gaineko kontrol eza nagusitu da, enpresa jabearekin lerrotatu dira eta ez digute lana erraztu”. Gaineratu dutenez, “Inasan gertatu bezala gaurkoan ere langileak bakarrik geratu gara interes orokorraren defentsan. Instituzioek, epaitegiek eta Moor Stephens administrazio konkurtsoak bat egin dute iruzur horretan langile eta zordunen kalterako”.

Ekintzaileek 11 enpresa sortu zituzten 2018an

Cederna-garalurreko ekintzailetza sustatzeko zerbitzura 30 ekintzailek jo zuten, 18 emakumezko eta 12 gizonezko. 13k autonomoetan izena eman zuten eta 11 enpresa sortu zituzten

SAKANA

Cederna-Garalurrek Arbizuko Utzubar industrialdean dagoen Utzugane garapen gunean du egoitza eta han ekintzaileei laguntzeko zerbitzua eskaintzen du astegunetan 08:00etatik 15:20era eta hitzordua eskatuta, Altsasun astelehenetan. Zerbitzua dohainik da, Nafar Lansarek eta udalek finantzatzeko dute. Proiektua gauzatzen lagundu, diru-laguntzak, eman beharreko pausoak, enpresa bat osatzeak dituen bete beharrak zein diren azaldu... "Nahi duten informazioa".

Susana Mendinuetak, Cederna Garalurreko teknikariak, Belexe Irratian (FM 107,3 edo www-



Ekintzaileei zuzendutako ikastaroa. Harremanetarako: 948 567 010. CEDERNA GARALUR

guaixe.eus) azaldu duenez, haiengana jotzen dutenetako batzuk "ideia oso zehatzak dituzte eta aurrera eramaten dituzte".

Argitu duenez, "hemendik pasatzen diren guztiak ez dute zergatik euren proiektua martxan jarri beharrik. Nondik jo, zer egin garbi ez duten pertsonak" ere hartzen dituzte. "Edo ekonomia datuak aztertu nahi dituztenak eta euren datuak ikusten dituztenean proiektua gauzatzen ez dutenak, datuek ez dutelako ematen autonomo gisa pagatu beharrekoa eta beste zergak pagatzeko. Horregatik, gelditzen dira aurrera eraman gabe".

Cederna Garalurreko kideak gaztigatu duenez, "ekintzaile gutxiago pasatzen direla konturatu gara. Krisiarekin jende gehiago pasatzen zen guretik. Azken bi urtetan, nik uste, enpresek lan gehiago eskaintzen dutela eta, horregatik, ekintzaile gutxiago dagoela". Cederna Garalurrek eskaintzen duen zerbitzua enpresa txikiak sortzen laguntzeko da, hau da, autonomo egin nahi diren pertsonendako, nahiz eta sozietate irregularrak gisa eratu. "Enpresa

handiek beste baliabide batzuk dituzte".

Gehiago

Ekintzaileei zuzendutako trebakuntza saioak ere antolatzen ditu Garalurrek. Horretarako, beti ere, haien premietatik abiatzen dira. "Jendeak ez du ikasi zein bete behar dituzun ogasunarekin, zer papera egin behar diren... Gabezia handiak daude. Martxan jarri behar direnez, saiatzen gara, gutxienez, azaleko ezagutza ematen dugu".

Garalurretik behar duten ekintzaileei arreta eta aholkularitza eskaintzeaz aparte, sentsibilizazio lana egiten dute ikastetxeetan. Haietara ekintzaile diren pertsonak eramaten dituzte ikasgeletara ikasleei euren lekukotza eman diezaieten. Horrelakoekin "enpresariaren figura gerturatu nahi dugu. Iruditzen zaigu enpresariak direla bakarrik enpresa handiak sortzen dituztenak. Enpresariak dira ere gure ondoan dagoen jende asko: denda martxan jarri dutenak, bere akademia... Gure inguruan enpresari asko daude eta horiei esker hainbat zerbitzu ditugu eskualdean".

Plazan baran...

Anitzartean
Sakanan

Anitzartean: Sakanako
Mankomunitatearen
Kulturartekotasun zerbitzua

Marrastu
gure logoa!



Autopistako bidesaria murriztu egingen da

Nafarroako Gobernuak egun egiten duen deskontuari Espainiako Gobernuaren ekarpenarekin egingen dena gehituko zaio eta BEZa ordainduko da soilik. Tarifa berriak aurki jakinaraziko dituzte

SAKANA

Espainiako Gobernuaren aurrekontuetan Nafarroako autopistako bidesaria "kentzeko" 12 milioi euroko diru-saila bideratu zen joan den urtean. UPNren ekimenez onartu zuen PPK. Gidariak soilik BEZa pagatuko dute. Manu Aierdi Ekonomia Garapenerako Lehendakariordeak azaldu zuenez, "guk deskontu handiari beste deskontu bat gaineratuko diogu. Baina, legez, erabiltzaileek BEZa ordaindu behar dute."

Aurretik "kristoren" deskontuak zeudela gogorarazi zuen: "egunero erabiltzen zutenen % 96 zen. Honekin % 98 baino gehiago da. Egunero erabiltzen ez dutenendako, hilean behin, esaterako; orain Nafarroako Gobernuaren deskontua % 70 da gutxi gorabehera eta honekin % 95era igoko da". Aierdik jakinarazi duenez, neurri hori hiru eta bost urte artean indarrean egonen dela kalkulatu dute. 12 milioi euro horietatik urtero bi pasa gastatuko dira. Jakinarazi zuenez, Nafarroako Gobernuak bere deskontuak pagatzeko 14,3 edo 14,4 milioi euro bideratzen ditu urtero. Madrildik etorritako dirua bukatzean "denon artean zer egin pentsatu beharko dugu".



Nafarroako autopistaren ikuspegia Aizkorbetik.

Tarifak

Nafarroako autopistako gaur egungo ohiko tarifa 2,2 eurokoa da ibilgailua arinendako, 2,85 eurokoa 1 motako ibilgailu astunendako eta 3,9 eurokoa 2 motako ibilgailu astunendako. Nafarroako Gobernuak tarifa horiei deskontuak aplikatzen dizkio, ViaT gailua duten ibilgailuei beti ere. Horren arabera joaterakoan Saratsako bidesaririk pasatzen direnei % 40ko deskontua egiten die. Eta 72 ordutan berriro handik pasatzen bada, buelta dohainik da.

Zenbat eta maiztasun handiago izan orduan eta gutxiago pagatzen du erabiltzaileak. Izan ere, bidesaririk hilean 12 pasa (joan-etorri) egiten dituztenei aipatutako deskontuari beste %40 gehitzen zaio. 20 pasa egiten dituztenen kasuan % 60ko deskontu gehigarria dute eta 36 joan etorri egiten dutenendako % 90eko deskontu gehigarria du. Horiei Madrildik etorritako diru-laguntzak gehitu beharko zaizkie. Antza, bidaiariek BEZ zerga besterik ez dute ordaindu beharko.



Urdiainen eguerdi aldera elkartuko dira elizan, argazkian, joan den urteko kofradeak. ARTXIBOA

Sanantondarrek hitz dute bihar-etzi

San Anton eguna atzo izan zen. Animalien eta abeltzainekin eta a babeslea da saildua. Sakanako San Anton lau kofradiak euren os kofrade gehiago bildu ahal izateko

SAKANA

Dorraon, Bakaikun, Iturmendin eta Urdiainen San Anton kofradiak daude eta sanantondarrak asteburuan elkartuko dira.

Dorrao

San Anton kofradiako buru edo priorea Agustin Lizarraga Etxeberria da. Bera eta laguntzaileak biharko gosaria prestatzera Itur-aldea elkartean elkartuko dira. Ziurrenik afaltzera geldituko dira. Sanantondar dorrobarrak bihar, 09:00etan, elizan elkartuko dira, hildako kofradeen aldeko mezan. Elizkizunaren ondoren priorearen etxean hildako kofradeen aldeko erresposua errezatuko

dute. Eta handik elkartera joanen dira, kofradiako karguak zozketa bidez berritzera. Eta horren ondoren gosariaren txanda izanen da. Gero, bazkaldu bitartean, nor bere albiziora ibiliko dira, 15:00etan, berriro ere, mahaiaren bueltan esertzeko. Dorraoko San Anton kofradia 1923koa da, beraz, mendeurrena ospatzeko 4 urte falta zaizkio.

Bakaiku

Bakaikun sanantondarrek ere larunbatean dute hitzordua, 13:00etan, elizan. Hildako kofradeen aldeko meza izanen da kofradiaren eguneko aurreneko ekitaldia. Hura despedituta,

Olaztiarrek San Sebastian ospatuko dute igandean

San Sebastian egunez, etzi, 12:15ean ermitan meza izanen da. Hura despedituta, 13:00etan, auzoko bizilagunek prestatutako auzatea eskainiko da. 17:00etan arrosarioa errezatuko da ermitan. Ondoren, ermitako estalpean, 17:30ean, txokolate-jana izanen da, erroskilez lagunduta. Ospakizuna frontoian despedituko da, auzatearekin, 20:00etan.



Olaztiarrek sansebastianetan.





zordua

bereekin zerikusia duten lanbideen ospakizunak asteburura pasa dituzte,

elizaren ondoan kofradeen talde argazkia eginen dute. Bazkal garaira arte poteoan ibiliko dira kofradeak. Bakarrekotzea elkarteko mahaira 14:30ean eseriko dira. Kofradiako maiordomo Iñaki Saez de Adanak erakundearen kontuen berri emanen du eta akta liburuan jasoa geldituko da, kofradiak izan dituen kideen artekin eta bajekin batera (1.715etik osatzen ari da). Saez de Adanaren bezero edo laguntzaile dena maiordomo izatera pasako da eta kofrade berri batek laguntzaile kargua hartuko du. Egiteko horiek despedituta, sanantondar bakaikuarrek majo bazkalduko dute.

Iturmendi

San Anton eguna domekan ospatzen duen kofradia bakarra da Iturmendikoa. Etzi, 12:30eko mezan elkartuko dira kofradiako kideak. Elizkizunera San Anton kofradiaren estandartearekin joanen dira. Mezaren ondoren, apaizaren etxean bazarra eginen dute sanantondarrek. Kofradiaren kontuak egunean jarri eta haien berri ematearekin batera, kide berrien eta hildakoen izenak gaineratu dira akta liburuan (1690ekoa). Azkenik, kofradiaren ardurak banatuko dituzte. Egiteko horiek guztiak despedituta, hildako kofradeen aldeko erresposntua errezatuko dute. Handik Arizaga elkartera joko dute, bazaltzera.

Urdiain

San Anton kofradiako kide urdiaindarrak bihar eguerdian elizan elkartuko dira. Hildako kofradeen aldeko mezan izanen dira. Aspaldi, eliz atean animaliak bedeinkatzen zituzten. Orain ordea, elizkizunaren ondoren, apaiza kofradeez inguratuta dagoela, elizako eskaileretatik herriko soro eta abereak bedeinkatuko ditu. Eta segituan San Anton kanta abestuko dute guztiek.

Egiteko horien ondoren, Tintinurri elkartean gosalduko dute eta handik herriaren etxera joanen dira, kofradiaren bazarra egitera. Diru kontuak, altak eta bajak akta liburuan jasoko dituzte (1691ekoa da kofradia). Poteoaren ondoren Aitziber elkartean bazkalduko dute. Eta iluntze aldera mahaitik jaso eta kofradiako ardura hartu eta utzi duten lau kideen etxeetara joanez errondan ibiliko dira.

Sansaastin ospakizunak, gaurtik igandera

Lakuntzan neguko festak ospatuko dituzte, San Sebastianen omenez. Gastronomía lehiaketak, dantzaldiak, auzateak eta zezensuzkoak izanen dira, besteak beste, presente daude gitarauan

LAKUNTZA

Festak berezkoak dituen osagaiak ere. Esaterako, larunbat gauerdian izanen den Lakuntzako 29. danborrada. Ohi bezala, lakuntzar bat omenduko dute eta oraingoan Yerai Lanz Azpikueta omenduko dute. Joan den urtean hil zen gaztea danborradan ez zuen hutsik egiten eta hori gogoratuko dute.

Igandean, San Sebastian egunarekin, lakuntzarra izen bereko ermita bisitatuko dute Aldaba dermioan. Arratsaldean kintoek alkate-dantza dantzatuko dute plazan (ikus azken orria).



San Saastin ermitara igandean igoko dira lakuntzarrak. ARTXIBOA

OSTIRALA 18

17:00 Sakanako Pilota Txapelketako finalak.
18:30 Lehiaketarako piperropilak udaletxean utzi.
19:00 Txupinazoa, Polekelele Txarangarekin. Ondoren txokolate-jana, gurasoek antolatuta.
19:15 Piperropil txapelketa.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
21:00 Zezensuzkoa.
23:00-02:30 Dantzaldia Oihan Vega dj-arekin.

LARUNBATA 19

11:00 Puzgarriak pilotalekuan.
12:30 Erraldoi eta buruhandien irteera.
13:00 Auzatea.
13:30 Ciento volando taldearen kontzertua.
16:30 Puzgarriak pilotalekuan.
19:00 Danborrada txikia.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Dantzaldia Drindotsekin.
21:00 Zezensuzkoa.
24:00 Danborrada.
01:00 04:30era Dantzaldia Drindots taldearekin.

IGANDEA 20

Goizean goiz Aurora.
11:00 Erromeria San Saastin ermitara
12:00 Meza ermitan.
13:00 Auzatea, Lakuntzako Pertzak eskainia.
18:30 Elai-Alai dantza taldea plazan.
19:00 Alkate dantza.
19:30 Buruhandiak.
19:30 Laguntasuna Rondallaren ikuskizuna.
20:00 Auzatea.
21:00 Zezensuzkoa.

Aliprox
Larrañeta z/g LAKUNTZA
948 576 246
Ongi pasa festetan!

OGI BERRI
Ongi pasa festetan!
APUR LAKUNTZA
Mikel Arregi 7 - Lakuntza
669 426 335
irabxo@hotmail.com

ARALAR
- FERRETERIA -
- BURDINDEGIA -
LAKUNTZA
1910 Alai, 15 behera
948 404 805
administracion@aralar-ferreteria.com
Ongi pasa festetan!

CARNICERIA I. ARREGUI
HARATEGI ETA URDAITEGIA
Sakanako hiltegian hildako haragia
Ongi pasa festetan!
Etxeko obradorea: tripota · tripotxa · mihia · kalluak · saltxitxak · frituak
948 576 067 · Herriko plaza z/g · LAKUNTZA

KALE TXIKI TABERNA
Ongi pasa festetan!
Lakuntza
Telf: 948 57 60 09

Ongi pasa jaiak!
LAGUNARTEA TABERNA
LAKUNTZA

Ongi pasa festetan!
TANIA
ARRAINDEGIA
948 576 300
Mikel Arregi 6
LAKUNTZA



Rafael Blanco Arbe Altsasuko Foru plazan, elizaren parean.

Lekukotzaren 60. urteurrena

Marino Aierra Redinen "No me avergonce del evangelio" liburuak 60 urte bete berri ditu 2018an. Gerra Zibilean zehar Altsasun apaiz izandakoak herrian bizi izan zen errepresioa jaso zuen liburuan, garai hartan gertatutakoa ezagutzeko ezinbestekoa

SAKANA
Marino Aierra Redinek (1903-1988) *No me avergonce del evangelio*. Desde mi parroquia de Alsua liburuak 1958an argitaratu zuen. Aierraren obraren ikerlari Rafa Blanco Arbek Belexe Irratian (FM 107,3 edo www.guaixe.eus) izan zen liburuz hizketan. Eta Aierraren biografiaren zertzelada batzuk gogora ekarriz hasi zen: "Aierra apaiza zen, Irunberrikoa. Oso ikasle ona. Intelektual handia. Erroman eta Frantzia ikasi zuen. Nafarroako herri batzuetan apaizlaguntzaile izan zen. Iruñeko seminarioan eta San Nikolas parrokiaren baita. Eta halako batean Altsasuko parrokiara etortzeko eskatu zuen". Eskaera hori egiteko Aierrak berak esandakoak gogorarazi zituen Blancok: "nonbait Altsasu oso herri errepublikazalea zen eta garai har-

tan parroko zebilena, Marino Aldabe (el gordo), ez zen batere ongi moldatzen herriko jendearekin. Ika-mika asko zeuzkan eta Aierrak horretaz bazekien zerbait eta Marzelino Olaetxea gotzainari Altsasura etortzeko eskatu zion". Blancok gaineratu zuenez, "nahiko asmo garbia zuen. Berak ez du esaten, baina niretako da Aierrak zuen erronka nahia. Bazituen helburu, ez dakit, batzuetan zailak. Hori dela eta, Altsasura etorri zen".
Aierra Altsasura 1936ko gari-laren 16an iritsi zen, estatuko kolpea baino bi egun lehenago.

"LIBURUAK BI ILDO DITU: GERRAREN GAITZESPENA ETA ELIZAREN DOTRINA KUESTIONATZEA"

"Gero etorri zena ez zuen inork espero. Ez Marinok, ez inork. Nafarroan errepresio bortitza izan zen. Espero zitekeenaren kontra Aierrak oso jarrera aktiboa, kritikoa eta ausarta hartu zuen. Gertatzen ziren erailketak eta errepresioa oso gogor salatu zituen pulpitutik, bai apezpikuarekin izan zituen elkarriketetan ere". Apaizak bi salaketari aurre egin behar izan zion. "Gerra Zibilak oso zauri sakona eragin zion Aierrari".

Blancok Sakanako irrati eskaldunean gaineratu zuenez, "Altsasuko herria oso eskertuta zegoen harekin. Baina gerraren aurrean izan zuen gogoetaz aparte, apaiza izatearen egitateaz ere gogoeta egin zuen eta apaizgoa uzteko erabaki irmoa hartu zuen". Gerra bukatutakoan izan zen hori, 1939an. "Liburuan kontatzen du hori".

Hego Amerikara

Uruguai apezpiku bat Iruñera bisitan etorri zela baliatuta, hara joateko baimena eskatu zion Aierrak. Baita lortu ere. Blancok azaldu zuenez, "kontua da Altsasuko jendeak asko maite zuela. Berak Altsasuko herria ere pila bat maite zuela. Liburuan oso ongi deskribatzen du nolakoa izan zen agurra: negu gogorreko egun batean, elurra egin zuela eta tren geltokian". Uruguaira joan eta hilabete gutxietara apaizgoari utzi zion, 1940an, Salton. "Apezpikuari eskutitza idatzi zion eta ile-apaintzaile hasi zen. Intelektual handia zenez, hizkuntza pila bat zekizkiez, latin eta greziera irakasle baita ere". Gerran bizitakoaz idatzen hasi zen. "Gero liburua izanen zena".

Uruguain zela "Iruñeko artzapezikutzak saiatu ziren Espainiara eramaten, apaiz joan zelako eta dagoeneko ez zelako. Barne Ministroarekin hitz egin zuen eta esan zion ez zuela arazorik Uruguain segitzeko. Hala ere, Argentinara aldatu zen". Han Andaluziako errepublikazale batzuen alaba batekin ezkondu zen. Hainbat lan izan zituen: laborari, hiltegi batean eta portugesa, frantsesa, latina eta italiara itzultzaile.

Liburuaz

Blancok azaldu zuenez, "batez ere, garrantzitsuena izan zen bere liburua bukatzea, argitaratzea eta Europara ekartzea. Nonbait, liburua argitaratu baino lehen jende askori aholkua eta zuzenketak egiteko eskatu zion. Besteak beste, Manuel Irujori, Constantino Salinas altsasuarrari, Indalecio Prieto buruzagi sozialistari...".

Gaineratu zuenez, "berak idatzitako eskutitzetan ikusten dugu Aierrak goi asmo oso handiak dituela. Liburuaren arrakasta handia aurreikusten zuen. Gero izan zuena. Baina izan zuena baino handiagoa. Zeren prest zegoen frantsesez, italieraz eta ingelesez ere emateko". Hori ez zen gertatuko. Buenos Airesko zenbait argitaletxeri bidali zien

"INORK LEHEN EDIZIOKO LIBURURIK BALDIN BADU, ARGAZKIA EGIN ETA GUAIXE BIDEZ PASA"

liburu baina bat bera ere ez zen prest agertu. Ordurako bi alaba zituen. "Berak argitaletxe moduko zerbait sortzeko gainkarga hartu zuen". Periplo izena eman zion eta horrela argitaratu zuen liburua. "Dirua ere ez zuen sobera. Baina, hala ere, inbertsioa egin zuen".

Liburuaren ale batzuk Argentinan banatu zituen, "baina batez ere Europara bidali zituen. Hemen bazegoen sare bat eta haren buru beste altsasuar bat zen, Martin Soler Zangitu". Errepublikazalea, gerrakoan borrokan aritutakoa, Frantziako Oloronen bizi zen eta Aierra ezagutzen zuen. Berak liburua jasotzen zituen eta Frantzian zeuden espainiar errepublikazaleen artean banatzen zituen, han legezkoa baitzen. "Espainian Franco zegoen eta guztiz debekatuta zegoen. Hala ere, aleka, klandestinoki ekartzen zituzten".

Blancok azaldu zuenez, "liburuak arrakasta polita izan zuen. Bigarren edizio bat egin zuen Argentinan ere. Bera arduratzen zen bidalketaz, kontuak eramateaz, Olorongoekin harremanak izateaz. Egia esan, liburu horrek inpaktu handia eragin zuen. Kontatzen zituen bizipenak oso gogorak ziren. Ez bakarrik nola gauzatu zen frankisten errepresioa, erailketa sistema, errepresioaren latza. Baita eliza katolikoarekin zituen desadostasun sakonak. Halako moldez, eliza katolikoarengan fedea galtzeraino iritsi zela Aierra".

Liburuan bi ildo ikusten ditu Blancok: "bata da, gerraren eta frankismoaren gaitzespena. Eta, gero, eliza katolikoaren dotrina bera goitik behera kuestionatzen du. Eta, nik uste dut, horregatik batzuk ez zutela ongi ikusi. Agian ongi ikusten zuten frankismoa eta Gerra Zibila gogor astintzea, baina eliza katolikoarekin izan zuen jarrera, askok ez zuten begi onez hartu". Kokatzeko, gogorarazi zuen liburua Vatikanoko II. Kontzilioaren aurretik argitaratu zela. "Orduan apaizgoari uztea oso erabaki muturrekoa zen. Estigma bat zen hori egiten zuenarendako, baita familiarendako ere". Aipatu zuen nola Uruguain errepublikazale batzuen hitzaldian Aierra apaiz ohi gisa aurkeztu zela. "Gerora hil zen bere amaren heriotzaren eskelan apaiz dela jartzen du. Ez zuten egitate hori agertzea nahi".



Txapelketako partida bat, hastear. I. ARITZA

Iñigo Aritza txapelketako bosgarren jarduna etzi

PILOTA Ikastolako frontoiak hartuko du txapelketaren 5. jarduna, igandean, 16:30ean

50 neska-mutiko ari dira lehian Iñigo Aritza ikastolako pilota txapelketan. Igandean, ilbeltzaren 27ko final handien aurreko azken jardunaldia dago jokoan.

5. jardunaldia

Umeak, benjaminak

- Ekhi Azpilikueta – Ekaitz Berdud
- Egoi Urtañan – Igarki Agirre
- Edorta Amillano – Ekaitz Zufiaurre
- Alaine Mendia – Garazi Gartzia
- Juna Mendia – Anitz Anda
- Bidane Fdez. de Garaialde – Ekhiñe Mariñelarena
- Ioar Oroz – Kimetz Flores
- Harri Mitxelena – Aratz Sanzol

Kimuak

- Beñat Andueza – Mikel Arrizabalaga
- Alejandro Lopez – Aiora Agirretxe
- Oier Carabias – Aimar Igoa
- Xabier Oroz – Hodei Ulaiar
- Eñaut Gastesi – Enaitz Gonzalez
- Amets Izquierdo – Alaitz Lanza
- Haizea San Roman – Ane Diaz
- Iraide Vergara – Uxue Anguiano
- June Sanzol – Ainhitze Armentia

Haurrak

- Asier Astiz – Patxi Azpeitia
- Peru Urteaga – Oier Mitxelena
- Aimar Bengoetxea – Iker Agudelo
- Aimar Gracia – Eneko Andueza

Gaur, Sakanako Pilota Txapelketako finalak

PILOTA Gaur, ostiralean, jokatu dira, Arbizun (16:30ean) eta Lakuntzan (17:00etan). Lehenengoz, emakumezkoak ariko dira. Guztira 13 final jokatu dira eta sari ematea San Saastin festetan murgildua egonen den Lakuntzan izanen da

Gaur, ilbeltzaren 18an, ostiralearekin, XXXI. Sakanako Pilota Txapelketaren finalak jokatu dira Arbizun eta Lakuntzan. Orain arte Lakuntzako San Saastin festetan jokatu ziren txapelketaren finalak, baina larunbatarekin, eta aurten San Saastinetan jokatu dira, baina ostiralean.

Emakumezkoen bi final, lehenengoz

XXXI. Sakanako Pilota Txapelketan Sakanako hainbat pilota klubetan aritzen diren 100 neska-mutikok baino gehiagok hartu dute parte. Aurten, lehenengoz, emakumezkoak aritu dira txapelketan, kimuen eta kadeteen mailan, eta horregatik oso pozik daude antolatzaileak. “Aurten emakumezkoen bi final izango ditugula azpimarratu nahi dugu, eta Sakanako txapelketarekin Sakanako pilota sustatzen jarraitu nahi dugu, bai modalitate honetan eta beste guztietan” adierazi dute antolatzaileak. Eta hori da, hain zuzen ere, Sakanako Pilota Txapelketaren helburua: gure bailaran pilota sustatzea eta Sakanako klubetan pilotan trebatzen ari diren neska-mutikoei txapelketa batean aritzea ahalbideratzea. Bide batez, emakumezkoen pilota sustatu nahi da.

6 klubetako ehundik gora pilotari

Olaztiko Sutegi, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota, Arbizuko Aldabide, Lakuntza eta Irurtzun klubetako pilotariak izan zira XXXI. Sakanako Pilota Txapelketan aritu direnak, ehundik gora neska-mutiko. Gaur, 16:30etik aurrera 7 final jokatu dira Arbizun, eta 17:00etatik aurrera 6 final Lakuntzan. Bukarera, Lakuntzak hartuko du sari ematea, nagusien mailako finala jokatu eta gero.



Sakanako Pilota Txapelketako aurreko urteko txapeldunak. ARTXIBOA

XXXI. Sakanako Txapelketako finalak

Gaur, ostiralean, jokatu dira XXXI. Sakanako Txapelketako finalak, Arbizun eta Lakuntzan. Ondoren Lakuntzako pilotalekuak hartuko du sari ematea.

Arbizun, 16:30an

- **Txikiak:** Lizaso-Beloki (Irurtzun) / Etxeberria anaiak (Irurtzun)
- **Umeak 2:** Lizarraga-Mitxelena (Pilotajauku) / Beloki-Gorraiz (Irurtzun)
- **Kimuak 2:** Nagore-Escudero (Irurtzun) / Beraza-Enaitz (Aldabide-Gure Pilota)
- **Haurrak 2:** Garmendia-Amado (Aldabide) / Arretxe-Razkin (Aldabide)
- **Kadeteak neskak:** Udane Bergara (Pilotajauku) / Naroa Agirre (Pilotajauku)
- **Kadeteak 1:** Mikel Imaz (Aldabide) / Ioritz Gorrotxategi (Aldabide)
- **Gazteak:** Lima-Azpiroz (Irurtzun) / Araña-Berastegi (Irurtzun)

Lakuntzan, 17:00etan

- **Umeak 1:** Lizarraga-Etxeberria (Irurtzun) / Xabier-Oihan (Aldabide)
- **Kimuak 1:** Igoa-Okiñena (Irurtzun) / Izagirre-Zabala (Aldabide)
- Kimuak neskak: Vergara-Izquierdo (Pilotajauku) / Sanzol-Lanza (Pilotajauku)
- **Haurrak 1:** Baztarrika-Lakuntza (Aldabide) / Imaz-Ortiz (Irurtzun)
- **Kadeteak 2:** Remiro-Ezkurra (Aldabide) / Arraiza-Cidoncha (Sutegi)
- **Nagusiak:** Ansotegi-Beraza (Gure Pilota-Irurtzun) / Murgiondo-Petriati (Irurtzun-Gure Pilota)

Ansak Zangozako Lau t'erdiko finala jokatu du

PILOTA Oberenan dabilen altsasuarrak Zugarraldeko Mugiro izango du aurkari biharko finaletan

Aurreko asteburuan Zangozako Lau t'erdiko Txapelketako finalerdiak jokatu ziren. Sakandarrei dagokienez, kimuetan Zubiria (Aldabide) eta seniorretan Ansa (Oberena) aritu ziren.

Kimuetako finalerdietan, Oberena taldeko Rekaldek 18 eta 5 irabazi zion Zubiriari (Aldabide), eta, hortaz, urdiaindarra txapelketatik kanpo utzi zuen. Aldiz, senior mailan, Ansa altsasuarrak (Oberena) 22 eta 21 hartu zuen mendean Arribillaga (Ardoi), partida oso estu eta lehiatua. Horrela, bihar, larunbatean, 17:30etik aurrera jokatu den finaletan aritzeko txartela lortu zuen Ansak. Hain zuzen ere, Zugarralde taldeko Mugiro izango du aurkari, azken honek finalerdian Zarantoni (Barañain) 22 eta 19 irabazi eta gero. Ea altsasuarrak txapela Sakanara ekartzeko duen.

Lakuntza Frontball Txapelketan

Ilbeltzaren hasieran Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria den Frontball Txapelketa jokatu zen haurren mailan. Aldabide klubeko Lakuntzak final laurdenak irabazi zituen, Cantolagua taldeko Rebole pilotariari 4 eta 12 irabazi eta gero, baina finalerdietan erori egin zen Aldabidekoa, Oberenako Sanchezek 4 eta 12 irabazi baitzion.

Irurtzun kluba Espainiako Txapelketan

Asteburuan abiatu zen Espainiako Pilota Txapelketa. Oherrezko Mailan, lehendabiziko jardunaldia jokatu zen. Tartean, A multzoko buruz burukoan Ongayk (Irurtzun) 2 eta 0 irabazi zion Pradejoneko Prietori (10 eta 2 eta 10 eta 2). Eta A multzoko Binakakoan Olazabalek eta Bergerak (Irurtzun) 2 eta 0 hartu zituzten mendean Pradejongo Garatea eta Saiz (10 eta 3 eta 10 eta 9).

FUTBOL PREFERENTEA

15. JARDUNALDIKO EMAITZA
Amigo - Etxarri Aranatz **3-2**

| SAILKAPENA | |
|-------------------------|---------------------------|
| PREFERENTEKO 1. MULTZOA | |
| 1 | Lagunak 27 |
| 11 | Etxarri Aranatz 19 |

PARTIDUA
IGANDEAN
16:15 San Jorge - Etxarri (*Amigo*)

Etxarrik ederki estutu zuen Amigo

Amigo aurreratu zen partiduan, baina Etxarrik berdindu zuen. Amigok bigarren sartu zuen eta Etxarrik berdintzea lortu zuen, baina Iruñekoek hirugarrena sartu zuten. Artieda eta Gentza kanporatuta, 9 jokalarirekin ere, bikain aritu zen Etxarri.

FUTBOL ERREGIONALA

16. JARDUNALDIKO EMAITZA
Lagun Artea - Altsasu **4-1**

| SAILKAPENA | |
|--------------------------|-----------------------|
| ERREGIONALEKO 1. MULTZOA | |
| 1 | Lagun Artea 39 |
| 4 | Altsasu 28 |

PARTIDUA
LARUNBATEAN
16:00 Altsasu - Liceo Monjardin (*Dantzaleku*)
Jokatuta Salesianos - Lagun Artea

Derbiko puntuak Lakuntzan

Derbi sakandarrean lehia oso estua izan zen hasieratik. Berastegik mustu zuen Lagun Artearen markagailua, eta 2. zatian abantaila sendotu zuten lakuntzarrek, Unai Zubiriaren golarekin. Mikelek Altsasu gerturatu zuen, baina Ollok eta Nabilek lortutako golei esker, 4 eta 1 irabazi zuen Lagunek. Asteburuan Lakuntzako festak direnez, Lagunek Salesianosena kontra jokatu beharreko partida aurreratu egin zen.



Igangeko derbian hartutako irudia.

Osasuna Magnak Cartagena hartuko du

ARETO FUTBOLA Azkeneko jardunaldian Imanol Arregiren taldeak launa berdindu zuen El Pozorekin, eta Murtziako taldeak lidergoa eta berdeek postu bat galdu zuten. Gaur Cartagena hartuko dute Anaitasuna pabilioian (20:30)

El Pozo Murciaren kontra partida zirrargarria jokatu zuen larunbatean Osasuna Magna Xotak. El Pozo Murcia liderra zen partida irabazteko faboritua baina hasieratik gauzak oso zail jarri zizkion Imanol Arregiren taldeak.

Lehen minututik puntuak lortzera atera ziren bi taldeak. El Pozo aurreratu zuen, baina Rafa Usinek berdintzea lortu zuen. Atsedena baino lehen bigarrena sartu zuen El Pozo Murciak, eta gol bateko aldearekin joan zen atsedena liderra.

Bigarren zatian bere horretan jarraitu zuen partidak. Dani Saldisek bina berdintzea lortu zuen eta ondoren arbitroak El Pozoko Xuxa aldageletara bidali zuen, protestatzeagatik txartel gorria ikusi eta gero. Segituan aurreratu egin zen talde berdea, Rafa Usinek sartutako golari esker (2 eta 3). Markagailuan mugimenduak jarraitu zuen: El Pozo Murciak hirura berdindu



Dani Saldise, jokoan. XOTA

zuen eta laugarren gola sartu zuen handik gutxira Bynhok. Horrela, 3 eta 4 aurreratu ziren nafarrak. Baina partida bukatzeaz zegoela laura berdintzea lortu zuen El Pozok, partida ikusgarrian.

Imanol Arregi teknikariak bere jokalariek egindako lanarekin gustura zegoela azaldu zuen. "Liderraren zelaian puntu bat lortu dugu eta hori positiboa da guretako, hasieratik bukaerara lan ona egin dugulako. El Pozok izugarri estutu gaitu, baina gu ere oso ongi ibili gara, aukerak izan ditugu eta, hortaz, berdinketa justua da" nabarmendu zuen prentsurrekoan.

Ostiralean Cartagena aurkari Anaitasunan

Berdinketaren ondorioz El Pozo Murciak lidergoa galdu zuen eta Barça Lassa da lehen mailako lider berria (42 puntu), El Pozo Murciarekin puntutara berdinduta. Osasuna Magnak ere postu bat egin du behera eta bosgarren postura jaitsi da (34 puntu). Gaur, ostiralean, 20:30ean, Osasuna Magnak sailkapenean 10.a den Jimbee Cartagena taldea hartuko du Anaitasunan.

SAKANAKO TOPAKETAK

PARTIDUA
IGANDEAN KIMUAK OLAZTIN
10:00 Lagun Artea 07 - Lagun Artea 08-1
11:00 Tipi Tapa - Etxarri Aranatz 1 A
12:00 Lagun Artea 08-A - Etxarri Aranatz A
13:00 Urdiain - Etxarri Aranatz 1

Sakanako Futbol Topaketak: igandean kimuen 8. jardunaldia Olaztin

Sakanako Futbol Topaketen barruan, kimuen mailako 8. jardunaldia izango da igandean Olaztin jokatu dena. Guztira lau partida jokatu dituzte Etxarri Aranatz, Lakuntza, Urdiain eta Altsasuko taldeek.

Sakanako Futbol Topaketak Sakanako Mankomunitateak antolatzen ditu, Sakanako futbol klub eta taldeen laguntzarekin. Futbola sustatzea da helburua, baina ez da txapelketa lehiakorra eta, horregatik, ez da sailkapenik egiten.

EMAKUM. ERREGIONALA

17. JARDUNALDIKO EMAITZA
Auto Areta - Altsasu **1-4**

| SAILKAPENA | |
|--------------------------------|-----------------------------|
| EMAK. ERREGIONALEKO 1. MULTZOA | |
| 1 | Osasuna Fundazioa 48 |
| 12 | Altsasu 16 |

PARTIDUA
IGANDEAN
11:00 Zaramonza - Altsasu (*Santa Cruz*)

Altsasuren garaipen garrantzitsua

Asteburuan garaipen garrantzitsua lortu zuten Altsasuko neskek, 1 eta 4 irabazi baitzioten Auto Aretari. Igandean 21 punturekin 11.a den Zaramonza dute aurkari, arerio zuzena.

ELOMENDI TXAPELKETA

11. JARDUNALDIKO EMAITZA
Zaldua - Elomendi **1-0**

| SAILKAPENA | |
|------------------------------|------------------|
| ELOMENDIKO FUTBOL TXAPELKETA | |
| 1 | Zaldua 25 |
| 2 | Unziti 22 |

PARTIDUA
LARUNBATEAN
Zehaztu gabeko orduan Ageri - Zaldua (*Ukar*)

Zalduak lidergoari eusten dio

Arakilgo Zalduak 1 eta 0 irabazi zion Elomendi asteburuan. Horrela, lider jarraitzen du Zalduak eta hiru puntu ateratzen dizkio Unziti bigarrenari eta Elomendi hirugarrenari.

Lasterbidean Sakanan

ATLETISMOA Euskal errepresaliatuen eta euren senideen eskubideen errespetua bulkatzeko ekimena da Lasterbidean. Asteburuan aurkeztu zuten aurtengo lasterketa, eta Sakanan jokatu da, maiatzaren 19an. Arbuzun hasi eta Lakuntzan despidutako da proba, "Leixterka denak itxa!" lelopean. Izena ematea: www.lasterbidean.eus.



LASTERBIDEAN

Araitz-Beteluko Kroseko sakandarrak

ATLETISMOA Alberto Martinez eta Maite Beregaña izan ziren lehen sakandarrak

Igandean Araitz-Betelu Krosa jokatu zen (7,7 km). Probak Betelu izan zuen irteera eta helmuga, eta Arribetik eta Atallutik pasatu zen. 168 korrikalarik hartu zuten parte proba nagusian eta txikienendako kategorietan, aldiz, ehun neska-mutiko inguruk egin zioten aurre euriari, hotzari eta eguraldi kaxkarrari.

Ezpeletako Jean-François Notebaertek hasieratik hartu zuen aurrea, Aitor Mimenza bizkaitarra gertu zuela. Lehendabiziko itzulia elkarrekin egin zuten, baina bigarrenen Notebaertek erritmoa azkartu zuen eta bakar bakarrik iritsi zen helmugara (24:56). Ezin izan zuen Javier Nagorek 2014an ezarritako errekorra gainditu (24:34). Sakandarraren artean Alberto Martinez lakuntzarra izan zen azkarrena (27:38).

Emakumezkoetan Cabanilla-seko Aitana Gilek ez zuen areririk izan (30:47).

Sakandarrak Araitz-Betelun

XIV. Araitz-Beteluko Krosean sakandarek egindako denborak bildu ditugu sailkapen honetan.

Sailkapen absolutua

| | |
|---------------------------------------|-------|
| 1. Jean-Francois Notebaert (Ezpeleta) | 24:56 |
| 22. Alberto Martinez (Lak) | 27:38 |
| 29. J. Carlos Gomez (Alts) | 28:42 |
| 53. L. Estarriaga (Etx) | 30:36 |
| 64. Maite Beregaña (Uhar) | 31:38 |
| 90. Kaxi Estarriaga (Etx) | 34:49 |
| 115. Amaia Aristu (Olaz) | 37:22 |



Azkeneko Altsasu Krosa 2017ko otsailean jokatu zen eta solidarioa izan zen, Altsasuko auzipetuen aldekoa.

Nafarroako Kros Motza, igandean Altsasun

ATLETISMOA XXXIII. Altsasuko Krosa jokatu da igandean Dantzalekun, 10:30etik aurrera. Hasieran kategoriatxikiko probak jokatu dira eta Nafarroako Kros Motza Txapelketa izango den proba nagusia 13:30ean hasiko da (5,2 km)

Dantzaleku Sakana atletismo klubak antolatuta, XXXIII. Altsasuko Krosa jokatu da igandean Dantzalekun, Nafarroako Atletismo Federazioaren, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren, Altsasuko Udalaren, Katealderen eta hainbat entitaterekin laguntzarekin. Altsasuko Krosa, aldi berean, Nafarroako Kros Motza Txapelketa izango da eta Dantzaleku inguruko paraje zoragarrietan jokatu da, 5,2 km izanen ditu, eta atleta federatuek gain, federatu gabekoek ere parte hartu ahal dute.

XXXIII. Altsasuko Krosa 13:30ean abiatuko da, Dantzaleku pistatik. Pistari itzuli bat egin eta gero, Dantzaleku, Basoixi eta Usolarrain inguruetan prestatutako ibilbideari 4 itzuli egin beharko dizkiete korrikalariek, Dantzalekuko pistetako helmugara iristeko. 5,2 km-ko proba da eta 16 urtetik gorako korrikalariek hartu ahal dute parte, federatutakoek eta federatu gabekoek.

Altsasuko proba, aldi berean, Nafarroako Kros Motza Txapelketa da eta, hortaz, Nafarroako txapeldunak erabakiko ditu. Euria iragartzen dute igandera. Hortaz, ura, lohia eta lokatza tarteko, krosa are krosagoa izango da.

Aurretik, NKJ-eko probak

Altsasuko Kroseko proba nagusia jokatu baino lehen, Nafarroako Kirol Jolasetarako baliagarriak diren kategoriatxikiko lasterketak jokatu dira, goizeko 10:30etik aurrera. Goizeko 10:30ean 18 urtez azpiko 4x1000 m erreleboak jokatu dira, 10:50ean 16 urtez azpiko 4x800 metroko erreleboak, 11:10ean 14 urtez azpiko 4x800

10:30EAN KATEGORIA TXIKIKO PROBAK HASIKO DIRA, ETA 13:30EAN PROBA NAGUSIA

erreleboak, 11:30ean 12 urtez azpiko 4x550 m erreleboak, 11:50ean 10 urtez azpiko 4x550 m erreleboak, 12:30ean gizonez-



Aurretik, NKJ-eko probak jokatu dira, goizeko 10:30etik aurrera. Goizeko 10:30ean 18 urtez azpiko 4x1000 m erreleboak jokatu dira, 10:50ean 16 urtez azpiko 4x800 metroko erreleboak, 11:10ean 14 urtez azpiko 4x800

eta 13:00etan emakumezkoen nagusiana (4.000 m).

Izena emateko azken eguna, gaurkoa

Altsasuko Kroseko proba nagusian izena ematea zabalik dago gaur, ostirala, ilbeltzaren 18ko 18:00ak arte www.dantzalekusakana.com webgunean. Izena ematearen truke 5 euro ordainduko dira igandean, probaren egunean bertan, dortsala jasotzerakoan. Federatuek gain, federatu gabekoek ere hartu ahal dute parte eta gutxienez 16 urte izan beharko dituzte korrikalariek.

Nafar Kirol Jolasetarako baliagarriak diren probetarako izena ematea, aldiz, atzo itxi zen Nafarroako Atletismo Federazioan.

Azkena, 2017 urtekoa

Azkeneko Altsasu Krosa, 32. Altsasuko Krosa hain zuzen ere, 2017ko otsailaren 19an jokatu zen, bi distantzian, 8 km eta 4 km. 150 korrikalari inguru aritu ziren guztira. Proba luzean Ion Sola (23:26) eta Tania Saez de la Fuente (29:43) gailendu ziren, eta Sergio Garcia de Eulate (laugarrena, 23:58) eta Ginesa Lopez (hirugarrena, 30:46) izan ziren lehen sakandarrak. Proba laburrean, aldiz, Mostapha Charkik (12:19) eta Izaskun Beunza olaztiarrak (14:25) irabazi zuten, eta Raul Audikana lehen gizonezko sakandarra izan zen (hirugarrena, 13:19).



Ezkurdiari eta Galarzari hankaz gora jarri zaie txapelketa. Martijak eta Altunak, aldiz, arnasa hartu zuten. UNAI BEROIZ

Soilik Martijak lortu zuen puntua Binakakoan

PILOTA Altuna III.ak eta Martijak 15 tantotan utzi zituzten Ezkurdia eta Galarza eta Irribarriak eta Zabaletak galdu egin zuten Elezkanoren eta Rezustaren kontra. Zabaletak eta Martijak aukerak dituzte, apenas aukerarik, aldiz, Ezkurdiak

Binakako Pilota Txapelketatan dabilzan pilotari sakandarrendako soilik Martijarendako izan zen ona aurreko asteburuko jardunaldia. Zortzigarren jardunaldia zen jokatu zena, tartean pilotari sakandarren arteko lehia ekarri zuena. Izan ere, larunbatean Ezkurdia eta Galarza Altuna III.aren eta Martijaren kontra aritu ziren.

Ezkurdiaren ezinezko tantoak
Bi bikoak bina puntu zituzten eta, hortaz, hirugarrena lortzea zen bien bai hala baiko helburua, txapelketan aurrera egiteko aukeraren bat izateko. Eta bizi-raute horretan hobeto moldatu ziren Altuna III.a eta Martija, Ezkurdiak eta Galarzak egindako akatsengatik batez ere. Horren erakusgarria da partida hasiera:

7 eta 9 aurreratu ziren Ezkurdia eta Galarza, baina Altunaren eta Martijaren 7 tanto horietatik bakarra izan zen eurek lortutakoa, gainontzeko guztiak Ezkurdiaren eta Galarzaren akatsak izan baitziren. Hori izan zen Ezkurdiaren eta Galarzaren madarikazioa: piloteoan eurek agintzen zuten, baina nagusitasun hori ez zuten markagailura

eraman. Merituzko tantoak akatsekin tartekatu zituen arbizuarrrak, eta Galarza ere ez zen oso fin ibili. Nolanahi ere, 8 eta 11 aurreratu ziren Ezkurdia eta Galarza, baina Ladisen akats baten ondoren Jokin Altunak berreskuratu zuen sarea eta hortik aurrera jokaldi guztiak ongi atera zitzaizkion Amezketaoari eta 18 eta 11 aurreratu ziren Altuna eta Martija. Joseba Ezkurdiak pilota ugari kendu zizkion Ladis Galarzari, eta nekea pilotzen hasi zitzaion arbizuarriari. Postura oso zailtan ia ezinezko pilotak bueltatzen saiatu zen. Aldiz, Altunak eta Martijak lan bikaina egin zuten defentsan eta abantaila garrantzitsua lortzeko gai izan ziren, 22 eta 15. Hirugarren puntua lortuta, oraindik bizirik daude, baina txapelketako aukerak zapuztu zaizkie, aldiz, Ezkurdiari eta Galarzari.

Zabaleta

Irribarriak eta Zabaletak Elezkanon II.a eta Rezusta izan zituzten arerio. Bi bikoek bosna puntu zituzten eta seigarrena lortzeko borroka oso estua espero zen Zumaian. Hasieran Irribarriak eta Zabaletak hartu zuten aurrea, Aramakoak erakutsitako indarrari eta erremate azkarrei esker. 3 eta 9 aurreratu ziren, eta atzeko koadroetan ere, ongi aritu zen Zabaleta.

Orduan, pausu bat aurrera egin zuen Danel Elezkanok. Bizkaitarrak agintea hartu zuen, Rezustari lana arindu zion eta, bere esanetara dantatu behar izan zuten gainontzekoek. Horrela, 21 eta 16 aurreratu ziren bizkaitarra eta gipuzkoarra. Irribarriak eta Zabaletak ez zuten partida galdutzat eman, 21 eta 19 gerturatu ziren, baina

Irribarriaren gantxo bat txapa azpira joan zen eta hurrengo tantoa Elezkanoren eta Rezustaren aldera erori zen.

Sailkapena

Binakako ligaxkan Elezkanon II.a eta Rezusta dira liderrak (6 puntu). 6 puntu dituzte ere Olaizola II.ak eta Albisuk. Irribarria-Zabaletak eta Artola-Mariezkurrena II.ak bosna puntu dituzte, Altuna III.a-Martijak eta Bengoetxea VI.a-Imazek hiruna puntu, eta, azkenik, Ezkurdia-Ladis Galarzak eta Urrutikoe-txea-Aretxabaletak bina puntu.

9. jardunaldiak dakarrena

Asteburuan Binakako Txapelketako 9. jardunaldia jokatuko da. Ezkurdiak eta Galarzak Urrutikoe-txea ordezkaturiko duen Unai Laso eta Aretxabaleta izango dituzte aurkarik gaur, ostiralean, Mungian. Bi bikoek bina puntu dituzte eta hil hala biziko partida dute aurretik. Arbizuarrrak onartu zuen txapelketan "ohi baino gehiago arriskatzen ari dela, eta, horregatik ohi baino akats gehiago egiten ari dela". Altuna III.ari eta Martijari hirugarren puntua lortzeak airea eman die eta bihar, larunbatean Olaizola II.aren eta Albisuren kontra animo gehiagorekin arituko dira. Eta Irribarriak eta Zabaletak igandeko Zumaiaiko arantza Eibarren atera nahiko dute, Bengoetxea VI.aren eta Imazen kontrako partidari.

EZKURDIAK ONARTU DU TXAPELKETAN OHI BAINO GEHIAGO ARRISKATZEN ARI DELA

Bergera Garfen ariko da 2019an

PILOTA Abenduaren bukaeran 2019ko denboraldiko aurkezpena egin zuen Garfe pilota enpresak Errioxako Tirgoko pilotalekuan. Momentuz 15 pilotari ditu Garfek, losu Bergera tartean (1990, Arruazu. 1,85 m eta 90 kg). Arruazuarra atzelaria da eta, besteak beste, Munduko txapelduna, Espainiako txapelduna eta Euskal Ligako txapelduna da.





Espainiako Ziklokros Txapelketan parte hartu zuten Nafarroako selekzioko txirrindulariak. NAFARROAKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOA

Sakandarrak ongi Espainiako Ziklokrosean

ZIKLOKROSA Nafarroako selekzioko 7 kideetatik 6 sakandarrak ziren: Jon Chamorro, Aimar Tadeo, Oihan Etxeberria eta Mikel Uncilla, kadeteetan, eta Igor Arrieta eta Iker Mintegi juniorretan. Arrieta laugarrena sailkatu zen juniorretan

Asteburuan Espainiako Ziklokros Txapelketak jokatu dira Pontevedran. Nafarroako selekzioak kadete eta junior mailetak 7 txirrindulariko taldea osatu zuen, eta nabarmentzekoa da 7 kide horietatik 6 sakandarrak zirela: Jon Chamorro (Burunda), Aimar Tadeo (Aralar), Oihan Etxeberria (Burunda) eta Mikel Uncilla

(Burunda) kadete mailan, eta Igor Arrieta (Aralar) eta Iker Mintegi (Burunda) junior mailan. Haiekin batera Tafalles taldeko Adrian Losarcos aritu zen junior mailan.

Larunbatean kadeteak lehiatu ziren. 3,4 km-ko ibilbide ederrari 4 itzuli eman behar zizkioten. Nafarroako txirrindulariak oso

atzetik atera ziren parrilan, baina laurek proba despiditza lortu zuten eta ziklokrosean aurrera pausua egitea. Madrillgo selekzioko Ruben Sanchez gailendu zen (32:33), Jon Chamorro 48.a sailkatu zen (37:07), Aimar Tadeo 49.a (37:23), Oihan Etxeberria 54.a (38:13) eta Mikel Uncilla 60.a (38:49).

Arrieta laugarrena

Igandean, aldiz, juniorren txanda izan zen. Ibilbideari 5 itzuli eman behar zizkioten, eta erritmo bizian burutu zen lasterketa, nahiz eta lurzorua trinko eta gogorra egon, tarteka izoztua. Carlos Canal galziarrak irabazi zuen proba (38:07), Kantabriako Gonzalo Iguanzoren (39:12) aurretik. Hirugarren posturako borroka latza izan zen, eta esprint estuaren ondoren Igor Arrieta uhartearra laugarrena izan zen (39:20). Podiuma zapatzeaz geratu zen uhartearra. Adrian Losarcos 18.a (42:00) eta Iker Mintegi 30.a (43:14) sailkatu ziren. Aipatu txirrindulariak junior mailan estreinatzen direnez, lortutako emaitza ona da.

Denboraldi berria prestatzen

Burunda eta Aralar klubak dagoeneko 2019 denboraldia izango dena prestatzen ari dira. Kategoria gorenekoek martxoan hasiko dute denboraldia, baina eskoletakoak beranduago ekingo diete lasterketei. Aipatzekoa da aurten Aralar klubak babesle berria izango duela, Sakana Kooperatiba.

NAFARROAKO SELEKZIOKO ZAZPI TXIRRINDULARIETATIK SEI SAKANDARRAK ZIREN



Aramendia, talde berrian.

Maialen Aramendiaren talde berria

Maialen Aramendia txirrindulari iturmendiarrak talde berria du: Murias-Limousin. Talde berria da, Euskadi-Murias taldeak eta tolosako Oriako Txirrindulari eskolako emakumeen txirrindularitza sustatzeko akordioaren ondorioz sortutakoa. 23 urtez azpiko taldean ariko da iturmendiarrak, Garazi Erostarbekin eta Irati Idirinekin batera. Horretaz gain, jubenilen eta kadeteen taldea ere izango ditu talde berriak.

SASKIBALOIA Ega Perfil Oncinedak 9 puntu atera zizkion CBASK-i

Autonomia Arteko 2. mailan 12. jardunaldia jokatu zen asteburuan eta larunbatean Lizarran jokatu zuen Altsasuko CBASK taldeak, Ega Perfil Oncineda taldearen kontra. Partida entrenigarrian, azkenean jokoan zeuden puntuak Lizarran geratu ziren, Ega Perfil Oncinedak 9 puntu atera baitzizkion CBASK taldeari (73 eta 64).

Autonomia Arteko 2. mailako lider jarraitzen du CB Cenicero La Alcoholera taldeak (20 puntu). CBASK bosgarrena da (15 puntu). Larunbatean etxean jokatu du CBASKek, Altsasun, sailkapenean bigarrena den Domiberia taldearen kontra, 18:00etan, Zelandi kiroldegian.

20 sakandar inguru EHko Emono Dan Tai Sen Topaketetara

EMONO DAN TAI SEN Igandean izanen da Topaketa, Baionan, eta Txuixoo taldeko sakandarrak ariko dira

Amets Euskal Herriko yoseikan budo taldeak Euskal Herriko II. Emono Dan Tai Sen Topaketak antolatu ditu igandean, ilbeltzaren 20an, Baionako Jean Fontan Kiroldegian, goizeko 10:00etatik aurrera.

Txiki eta helduendako taldekako armen borrokak izanen dira Euskal Herriko Emono Dan Tai Sen Topaketetan jokatu direnak. Bertan, Amets yoseikan budo taldeko kide diren Euskal Herriko klubek hartuko dute parte, tartean Etxarri Aranazko eta Altsasuko Txuixoo taldeak.

Amets taldeko klub guztiak

Aritz Agirrebengoa yoseikan budo irakasle altsasuarrak adierazi digunez, Sakanako bi eskoletatik 20ren bat borrokalarik hartuko dute parte igandeko Baionako Topaketan. Sakandarrakin batera, Hego Euskal Herriko Erandioko, Atarrabiako eta Berriozarko eskolek, eta Iparraldeko Urruña, Baiona, Bidaxune, Kanbo, Izturitze, Pagola, Atharratze eta Mauleko eskolako kideek hartuko dute parte, guztiak Amets taldeko klubak.



Aurreko urteko Euskal Herriko Emono Dan Tai Sen Topaketetan. UTZITAKOIA

Emono Dan Tai Sen edo "Makilak Taldeka" jardunaldian, 3 borrokalariz osatutako bi talde 3 minutuz lehiatuko dira. Helburua, finean, makilekin 15 ukitze egitea da (21 puntu finalen).

Informazio gehiago www.yoseikanbudo.eus web gunean topa daiteke. Youtuben aurreko urteko topaketako jardunaldian grabatutako bideoa ikus daiteke "Euskal Herriko Emono Dan Tai Sen 2018" bilatuz gero.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 18

ALTSASU Gazte agenda.
Naturalia.

18:00etan, Intxostiapunta gazte
gunean.

ETXARRI ARANATZ Beilatokia
toki egokian. Nahi izanez gero
posible da kontzentrazioa.
19:00etan, Kale Nagusiko 7.
zenbakiaren parean.

OLATZAGUTIA Sakana Trenaren
Alde plataformaren aurkezpena,
AHT ibilbidearen eta Lautadako
borrokaren berri emanen da.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Pintxopotea.
20:30etan, gaztetxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak Euskal Herrira
kontzentrazioak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske
kontzentrazioa.
20:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Viudas filmaren
emanaldia.
22:00etan, lortia kultur gunean.

LARUNBATA 19

LAKUNTZA Ciento volando
taldearen kontzertua.
13:30etan, plazan.

ALTSASU Mus txapelketa.
17:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Gazte agenda. Musika
txapelketa.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Gay Movie ikuskizuna.
Yllana konpainia.

19:30etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 20

ALTSASU Bikuñatik Zadorrako
iturrietara Entziako
laberintoetatik pasatzen
ibilbidea eginen du Altsasuko
Mendigoizale taldeak.
08:00etan, taldearen egoitzan.

ALTSASU Aski da! Altsasukoak
ASKE nahi ditugu!
Kontzentrazioa eta herri
agerraldia.
13:00etan, udaletxe parean.

ALTSASU Udare erraldoiaren
istorio harrigarria haurrentako
filmaren emanaldia.
17:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Gazte agenda.
Komikien hizkuntza.
18:00etan, Intxostiapuntan.

ALTSASU Viudas filmaren
emanaldia.
19:30etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Dogman filmaren
emanaldia.
19:40etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Euskal presoak Euskal
Herrira kontzentrazioa.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 21

ALTSASU Pentsio duinen
alde. Sasoiak eta Nafarroako
Pentsionistak Martxanek
deitutako elkarretaratzea.
12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEARTEA 22

ETXARRI ARANATZ Nola ziurtatu

zure presentzia komertziala
on-line-n, saiakeran hil gabe
formakuntza saioa. Hizlaria:
Mireia Jimenez.
15:00etatik 17:00etara, kultur
etxean.

OLAZTI Kafe konpondu. Hautsita
dauden objektuak konpontzeko
tailerra.
18:00etatik 20:00etara, kultur
etxean.

ALTSASU TV3k emanen duen
"Altsasu: Ferides obertes"
dokumentalaren zuzeneko
emanaldia.
21:30etan, lortia kultur gunean.
Gonbidapena jaso behar da.

ASTEAZKENA 23

ALTSASU Literatur solasaldia
Miren Agur Meaberekin.
Sakanako Mankomunitateak,
AEK Itsesi euskaltegiak eta
Sakanako mintzakideak
antolatuta.
09:30etan, euskaltegian.

BAKAIKU Kafe konpondu.
Hautsita dauden objektuak
konpontzeko tailerra.
18:00etatik 20:00etara, elkartearen.

ALTSASU Cartas a Renata Javier
Corres idazle altsasuarraren
liburuaren aurkezpena.
19:00etan, lortia kultur gunean.

OSTEGUNA 24

ALTSASU Euskara, familian
ardura da. Tresnak. hitzaldia.
Hizlaria: Paula Kasares
soziolinguista.
17:00etan, Txioakan.

ETXARRI ARANATZ Kafe
konpondu. Hautsita dauden



ALTSASU Ezkaba 1938-2018 erakusketa. Urtarrilaren 27ra arte.
Asteleheneetatik larunbatetara 18:30etik 21:00etara eta igandetan
16:00etatik 20:30era, lortia kultur gunean.

objektuak konpontzeko tailerra.
18:00etatik 20:00etara, udaletxe
estaloan.

ETXARRI ARANATZ Arrasate
Arizmendi ikastolako
berrikuntza pedagogikoan
arduradun eta konfiantzaren
pedagogian aditua den Amaia
Anterok hitzaldia emango du.
18:30etan, Andra Mari
ikastolan.

ETXARRI ARANATZ Irakurle

taldea Arantxa Urretabizkaia
idazlearen Bidea ikasiaz
liburuaz hizketatzeko bilduko
dira.
19:00etan, liburutegian.

ALTSASU El reverendo filmaren
emanaldia.
19:00etan, lortia kultur gunean.

ALTSASU Sobre ruedas filmaren
emanaldia.
19:30etan, lortia kultur
gunean.



IRAGARKI SAILKATUAK

ALTZARIAK
SALGAI
Sofa-oheta SALGAI. Gubi erabilia, oso egoera onean dago. (www.guaixe.eus/iragarkiak web-orrian argazkia ikusgai). 150 euro. Deitu 696126174

LANA
LAN ESKAINTZA
Nafarroako Topagunea. Oinarritzko eskakizunak: Euskara ongi menperatzea, gidabaimena eta autoa edukitzea, ofimatika eta teknologia berriak menperatzea, komunikaziorako gaitasuna izatea. Curriculumak bidaltzeko epea urtarrilaren 29an, 14:00etan bukatuko da. Posta elektronikoz bidali behar dira: oskar@topagunea.eus helbidera.

LEHIAKETAK
GAZTEWOODAitsasuko gaztetxearen III. Film laburren txapelketa. Gehienez 15 minutu. Lanak MP4 formatuan, DVDan edo pendrivean aurkeztu behar dira 2019ko martxoaren 19a baino lehen. Informazio gehiagorako gazteewood@gmail.com edo sare sozialetan gazteewood profilean.

OHARRAK
Bidelagun izan nahi? Mintzakide programaren bidez euskara praktikatzera elkartzen dira hizkuntza ikasten ari direnak eta hizketatzeko ohitura dutenak. Euskaldun batekin, bidelagun batekin aritzen dira. Bidelagun izan nahi duzu? 600 482 024 telefonoan edo AE-Kren Itsasi euskaltegian duzu informazio guztia.

Odol-emateak Etxarri Aranatz: Ilbeltzaren 23an, 17:00tatik 20:30tara, www.adona.es/au

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte haueetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 069 0 24 8 7 8 , Rural kutxa 3008 0001 16 0 7 0 0 2 7 9 1 2 8 eta Caixa 2100 2173 87 0200346965

GoiEner. Iruñeko helbide berria: Kale Berria 111, 31001 Iruñea, tel 948 504 135. Hileroko 1. eta 3. asteazkenetan, 17:00-19:00.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardueira sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoe-tara hots egin dezatela

Josefina Arregui kliniko bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosefinaarreguilagu-

nak@gmail.com edo amigosefinaarreguilagu-nak.blogspot.com

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzen: http://go-teo.org/project/zu-gabe-ezin

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilenendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.


OPATUTAKOAK/GALDUTAKOAK
OPATUTAKOAK
ERLOJUA ALTSASUN. Esferaren atzeko aldean MR hizkiak eta 22-6-53 eta 22-6-78 datak ditu idatziak. Longines markakoa. Galdu duenak Guaixe astekarira hots egin dezala, 948 564 275

Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audi-fonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bixiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburrak.eus

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 18




Zerua hodeitsu egongo da egun guztian zehar eta noizean behin eguzkia ikusteko aukera izango dugu., temperatura igo araziz.

Igandea, 20




Euria gogotik egingo du egun guztian zehar, zaparrada ugariarekin. Tenperatura ez direnez gehiegi jeitsiko, elur maila altu mantenduko da.

Larunbata, 19



Hego ikutuko haizeak euria ekarriko du gurera, arratsaldean batez ere. Tenperaturak ez dira gehiegi jaitsiko

Astelehena, 21



lpar haizearen eraginez, tenperaturek behera egingo dute, elurra ekarri zure ingurura. Egun guztian zehar egongo da arriskua.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen

gorabeheren erantzukizunik. ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ora arte.

OROIGARRIA

Franzis Agirre Mujika

I.urteurrena

Ez da erraza baloratzea Pertsona baten tamaina Gauza txikiek egiten dute txikia handi alajaina doinu politikak hizketa ederrak ta gaztaren erre usaina Franzis maitea balio zendun Gizon haundi askok haina

Bestalden zure falta somatzen dugu

A.A eta Mm.A



- Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- 948 19 70 70
- @Gruporache
- Gruporache
- www.tanatoriosirache.es



'Gag Movie'-ko aktoreak. UTZITAKOA

Antzerkian eginen duten zinemari omenaldi barregarria


'Gag Movie' ikuskizuna izanen da bihar, ilbeltzaren 19, larunbata, lortia kultur gunean, 19:30ean

ALTSASU

Yllana antzerki konpainia ezagunaren antzezlanak da *Gag Movie*. Zinemaren munduaren inguruko umorezko kontakizuna egiten du konpainiak, film baten filmatze batean oinarrituta. Hortaz, errodate horretan sortzen diren nondik norakoak azalera-tzen ditu *Gag Movie* ikuskizunak: diva sentitzen den aktore nagusia, zuzendari perfekzionista, produktore mafioso eta entxufatu duten produktorearen biloba. Bihar, larunbata, izanen da emanaldia, 19:30ean, Iortia kultur gunean.

Gag Movie ikuskizunarekin zinemari omenaldia egin nahi izan dio Yllana antzerki konpainiak. Nola eta film zentzugabe baten filmaketa erakutsiz. Zinemaren munduaren satira dibertigarria da: famari, irudiari eta zazpigarren arteari buruzko umorezko kontakizuna.

Antzerkia egiten duten zinemazaleak direla diote Yllana konpainiako kideek. Zinema eta antzerkia uztartzen dute, eta haien lenguaia zinematografikoa. Esaterako, *Gag Movie* antzezlanean film baten filmazioari buruz hitz egiten dute.



UTZITAKOA

Eta beste 25 urterako

Etorrizuna dantza eskolak 25. urteurrena ospatu zuen 2018. ean, eta urte berezia amaiera eamteko emanaldi erraldoia egin zuen Altsasuko Burunda frontoian. Sarrerak agortu ziren 25 urteetan eskolatik pasa diren hamaika dantzariak ikusteko; izan ere, dantzariak izandakoek ere dantzatu zuten emanaldi berezi honetan. 40 dantzari inguru egon ziren agertokian.

Bertsolari Txapelketaren aurretik, kanporaketak

Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bi aurre-kanporaketa saio eginen dira gaur eta bihar, Iruñean eta Irunberrin. Bi sakandarrek parte hartuko dute aurrekanporaketetan: Idoia Granizo altsasuarra, gaur, eta Saats Karasatorre etxarriarra, bihar

ETXARRI ARANATZ - ALTSASU

Otsailaren 9tik martxoaren 23ra jokatu da Nafarroako Bertsolari Txapelketa. Aurretik, txapelketan parte hartuko duten bertsolarien zerrenda ixteko aurrekanporaketak eginen dituzte. Gaur eta bihar izanen dira saioak Iruñeko Txantrea auzoko Auzotegian eta Irunberriko Gartzate Etxean. Idoia Granizo eta Saats Karasatorre ariko dira txapelketan parte hartzeko txartela lortzen.

Historiako 44. Nafarroako Bertsolari Txapelketa izanen da aurtengoa. 30 bertsolarik eman dute izena, baina 24 izanen dira finalaurrenetako fasean. Hortaz,

gaur eta bihar jokatuko diren aurrekanporaketetan zehaztuko dira azken parte hartzaileak. Finalaurrenetan otsailaren 9an abiatuko dira, eta martxoaren 23an izanen da finala.

Idoia Granizo gaur, ilbeltzaren 18an, arituko da Nafarroako Bertsolari Txapelketaren lehenengo aurrekanporaketan. Lehen aldiz parte hartzen duten sei bertsolarien aurrekanporaketa jokatu da gaur. Hortaz, Granizoren lehenengo Nafarroako Bertsolari Txapelketa izanen da. Aurrekanporaketa gaur izanen da, ilbeltzaren 18, ostirala, 19:30ean, Iruñeko Txantrea auzoko Auzotegian.

Bihar, ilbeltzaren 19a, larunbata, 19:30ean, azken txapelketako azken sei sailkatuen aurrekanporaketa izanen da. Saats Karasatorrek parte hartuko du biharko aurrekanporaketan, izan ere, 2017ko Nafarroako Bertsolari Txapelketan 25. sailkatu zen. Aurrekanporaketan parte parte hartuko duten hamabi bertsolarietatik, seik eginen dute aurre-kanporaketa.

Arkaitz Goikoetxea, Joseba Beltza eta Saio Mitxelena izanen dira epaileak eta bertsolariek zortziko handian eta txikian, hamarrek txikian eta gai bat emanda hainbat bertso egin beharko dituzte, besteak beste.



BAZTERRETIK

RICARDO ARETA URRESTARAZU

Musikari prodijiotsuak

Jaialdiak antolatzen dituen inork ez litzuke **Stevie Wonder**, **Mike Oldfield**, **Björk** eta **Joe Bonamassa** kartel berean elkartuko, lehen begiradan elkarren artean zerikusirik ez baitute. Baina konpartitzen duten zerbait bada: guztiak haur prodijioak izan ziren eta gainera ibilbide musikal luze eta garrantzitsua mantentzeko gai izan dira.

Stevie Wonder, guztietan haurtzaro oparoena izan zuena da. Adinez nagusia izan baino lehen 9 disko grabatu zituen. Lehena 12 urterekin, "Little Stevie" bezala ezagutzen dena. Bere hastapenak Motown-eko Jazz eta Soul soinuaren oinarritu ziren arren, 70. hamarkadan lehen sintetizadoreen soinuekin esperimentatzen hasi zen eta ondoren Princek edo Michael Jacksonek jarraitu dituzten estiloen garapena izanen denaren ibilbidea markatu zuen.

Mike Oldfieldek

gitarrarako kanta instrumentalak konposatzen zituen 10 urterekin. Baina 15 urte zituenean grabatu zuen bere lehen diskoa bere arrebarekin batera. Proiektu honek urte bat iraun zuen. Ondoren, Mikek musika munduan saiatzen jarraitu zuen, hainbat taldeetan instrumentista, bere bakarkako lehen lanari forma ematen zihoan bitartean. "Tubular Bells" lanak 1973an ikusi zuen argia eta diskoan entzun daitezkeen musika tresnetatik 20 berak bertan grabatu zituen. Garai hartan diskoetxe komertzialek ezarritako moldeekin hautsi zuen, rock soinuak eta konposizio sinfonikoa uztartuz eta bere gainerako diskografiaren nortasun ezaugarria izanen den berezko estiloa sortu zuen.

Björk abeslari, kompositore, aktore, produktore eta idazle islandiarra, 12 urterekin sinatu zuen bere lehen diskoa. Hainbat taldeetako kide izan zen arren, hasieratik bakarkako ibilbidea bilatzen zuen. Musika mota askorekin esperimentatu du, guztietan bikain aritu da eta guztiekin kritikaren txaloaldia jaso du. Bere lanetako bat aukeratu beharko banu, interpretazioa eta musika uztartzen dituen Lars Von Trier zuzendari eztabaidatuaren "Dancer in the dark" pelikula izanen zen, zalantzarik gabe.

Joe Bonamassa, 7 urterekin gitarra jotzen birtuoso bat zen eta 12 urterekin B.B.King-ekin eszenatokia konpartitzen zuen. Egun gitarraren erreferente nagusienetako bat da eta Bluesaren kondaira bizia. Bere lehen lan diskografikotik, 1994ean, 20 disko baino gehiago pilatu ditu. Grabazio lanetan ez dagoenean oholta gainean dago, eta hau zorionez, gauza ona da guretzat, ohikoa baita Euskal Herriko eszenatokitian ikusteko aukera izatea.

Laberintoaren istorioa, pantaila handira

'En el laberinto de los Dioses' film laburraren emanaldia izanen da gaur eta igandean, lortia kultur gunean, 'Viudas' filmaren aurretik. Erkudengo Ama Abesbatzak eta Luis Orduña musikariak musika jarri diote Joseba Salegiren ikus-entzunezkoari

ALTSASU


Joseba Salegi zinemagileak Altsasuko Arte Azokarako sortu zuen *En el laberinto de los Dioses* film laburra. Baina ez zuen bukatu. "Azoka izan zen motibazioa. Baina amaiera falta zitzaion". Hortaz, Azoka amaituta lanean jarri zen eta film laburrari "herri" bukaera eman dio; hasieratik nahi zuen bezala.

En el laberinto de los Dioses film laburrean Salegik Altsasuren kontakizun "kontzeptuala" egin du. Bi pertsonai ateratzen dira: Momotxorroa eta Greziako gerlaria. Bien arteko eztabaida bat ematen da, eta "gazteen kontakizunaren gerturatze bat" dela dio Salegik. Greziako tragedia erabili zuen zinemagileak, "gure kultur nagusiaren oinarria" delako.

Ipuin klasikoan "herria" sarzea falta zitzaioela esan du Salegik: "literatura klasikoan bezala koroaren bidez agertu behar zen herria". Beraz, film laburra amaitzeko Erkudengo Ama Abesbatzaren laguntza izan du. Abesbatzak interpretatzen duen lana Luis Orduña Haize Berriak bandako zuzendariak konposatu du. "Film laburra borobildu dut".

Pantaila handian ikusteko film laburra sortu du, beraz, Salegik: "ikus-entzuleak kontzeptu zinematografikoan ikustea nahi dut". Arte Azokarako sortutako lana "bisualki" antzekoa den arren, bertsio berria "emozionalagoa" dela dio. Abesbatzak ematen dio emozionaltasun hori, film laburraren zuzendariaren arabera.

"Hasieratik ari naiz laguntza eske, elkarlanean zerbait egiteko prest. Jendeari film laburra ikusteko eskatzen nien, eta gero komentatzeko". Inma Arroyo Erkudengo Ama Abesbatzako zuzendaria izan zen film laburra ikusi eta parte hartzeko prest agertu zen; hasieran zer egin behar zuten oso ongi ulertzen



'En el laberinto de los Dioses' film laburraren fotograma. UTZITAKOA

GONZALEZ AZILUREN 'ARRANO BELTZA' LANEAN OINARRITU DIRA MUSIKA SORTZEKO

ez bazuen ere. "Hasieran ez zuten ulertzen egin nahi nuena. Baina bazekiten zerbait ezberdina zela eta parte hartu nahi zutela".

Luis Orduñak konposatu du *En el laberinto de los Dioses* film laburraren bertsio berrian entzun daitekeen "herriaren hotsa". Film laburraren zuzendaria eta Haize Berriak bandako zuzendaria elkartu ziren eta ikus-entzunezko lanaren testuari buelta bat eman zioten, testuz-testu eta Orduñak eske ma bat egin zuela azaldu du Salegik.

"Arrano Beltza-ri gerturatzen zen zerbait egin nahi nuela esan nion". Baina gerturapen bat baino ez da, Orduñak argitu bezala: "lanek ez dute antzarik. Hasteko luzera ezberdina da. Baina hainbat erreferentzia eginen dio".

Arrano Beltza Agustín González Azilu konposatzaile altsasuarraren lan bat da. González Azilu musika garaikidearen ordezkari nabarmenetako bat da eta *Arrano Beltza* lana 51ko belaunaldiaren esperimentu azpimagarrienetakoa da. 1975 eta 1976 urteen artean sortu zuen, Salegik miresten duena: "harrigarria da horrelako lan handi bat garai horretan egin izana". Hortaz, film laburrean "horrelako zerbait jaso nahi nuen".

González lanaren musikaltasuna gustatzen zaio Salegiri: "sa-sa, alsa, doinuak nahi nituen egin film laburrak eskatzen zuelako". Abesbatzako kideek Orduñak prestatutako lana ikusi zutenean "ez zekiten zer pentsatu", baina azkenean abeslariak Salegik lortu nahi zuen soinua ongi lortu zutela azaldu du.

Film laburraren bertsio berria atzo proiektatu zuten lehenengo aldiz, Iortia kultur gunean. Gaur eta igandean asteko filmaren emanaldiaren aurretik ikusteko aukera izanen da, 21:50ean eta 19:20ean gutxi gora behera. Altsasuarrak "aske sentitzeko" filma da.

Osoa: www.guaixe.eus



'Zama doinuz arindu' jaialdian parte hartu zutenen talde argazkia.

Doinua, maitasuna, elkartasuna eta irribarrea, Etxarriko jaialdian

'Zama doinuz arindu' jaialdiaren laugarren edizioa arrakastatsua izan da beste behin ere

ETXARRI ARANATZ

Doinuarekin euskal presoen, errefuxiatuen eta iheslarien "sufrimendua" arintzea da 'Zama doinuz arindu'-ren helburua. Beste urte batez, eta laugarrena izan da, arrakastatsua izan da Etxarri Aranatzen ospatutako kontzertua: bi emanaldietarako sarrerak agortu ziren. Lan taldeak balorazio positiboa egin du. Bi emanaldi izan ziren igandean Etxarri Aranazko kultur etxean. Eta biak bete ziren.

"Gustura esango genuke aurtengo Zama azkena izan dela". Baina azkena izan arte "han

egongo" direla adierazi du lan taldeak. Hainbat urtetako sufrimenduari "doinua, maitasuna, elkartasuna eta irribarrea" jarri ziotela azaldu zuten. Urtero preso eskubideen urraketaren inguruko gai bat hartzen dute, eta aurten emakumea eta kartzela izan da jorrotutako gaia. Bideoaren bidez egin zuten, eta protagonista Itziar Ituño aktorea izan zen.

Une hunkigarriak ere izan ziren jaialdian. Azken astean "joan zaigun" Luis Mariñelarena presoaren aitari omenaldia eskaini zitzaion.

Etxean aurkeztuko du liburua Javier Korres idazleak

'Cartas para Renata' liburua aurkeztuko du Korresek Iortian, ilbeltzaren 23an, asteazkena, 19:00etan

ALTSASU

Maitasunezko kontakizunen liburua da Javier Korres idazle altsasuarraren azken liburua: *Cartas para Renata*. Korresek amodiozko gutunak diren narrazioak bildu ditu. Ilbeltzaren 23an, asteazkena, liburuaren aurkezpena egingo du Altsasuko Iortia kultur gunean, 19:00etan.

Cartas para Renata liburuan agertzen den maitasuna desberdina da, unibertatsala. Norbana-koaren eta mementoaren arteko harremanei buruzko hausnarketa zorrotza egin du.

Javier Korres poesia eta narrazioaren artean mugitu da. Idaztea bizitzeko ezinbesteko ariketa dela dio, izan ere, munduarekin duen harremana adierazteko modua da. 14 urtekin Gazteendako narrazio laburren Espainiako Sari Nazionala irabazi zuen *Villancico de Cristo gitano* narrazioarekin. Bere literatura jarduna 1983. urtean hasi zen *Este silencio sonado* poema bilduma argitaratu zuenean. Gainera, 1987 eta 1990era Elgacena literatur aldizkariaren zuzendaria izan zen.

11 GALDERA



Lakuntzako kintoak. UTZITAKOA

"Alkate dantza egitea zerbait berezia da"

Sansaastin festak ospatuko dituzte Lakuntzan asteburuan, eta sailduaren egunean, igandean, kintoek Alkate dantza egiten dute. Adur Kanpo eta Leire Sagarzazu kintoak eta dantzariak dira eta dantza beste kintoei irakasten aritu dira

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

1 Kintoek Alkate dantza egiten duzue San Saastin egunean. Zergatik?

Lakuntzan kintadak kintoen eta kinto gazteen artean ospatzen dira. Kintoei Lakuntzan galtzen ari zen dantza bat egitea eskatu zitzaie. Orduan, kintoek eta kinto gazteek San Saastin egu-

nean eta Korpusean Alkate dantza dantzatzeko modu bat izan zen, beraz.

2 Dantza berreskuratzeko modu bat izan zen, beraz.

Bai. Lehen Alkate dantza egitea boluntarioa zen; gazteek dantzatzeko zuten. Baina jendeari ez zitzaizkien euskal dantzak gustatzen edota pixkanaka ohitura galduz joan zen, eta duela hainbat urte

alkate andere batek dantza taldeari eskatu zion dantza egitea. Beraz, diru-laguntza eskaini zien dantzatzearren truke. Baina dantza taldeak ezetz esan zuen haiek bazituztelako haien ikuskizunak. Orduan, kintoei eman zitzaie arduraren hori. Kintadak ospatzen zizuten, festetan eta Korpus egunean Alkate dantza dantzatu beharko zutelako erabaki zuten.

3 Noiz izan zen hori?

Leireren birraitona dantza erakusten hasi zen, baina ez dakigu zein urtetan izan zen. Baina aspaldi izan zen, dagoneko tradizio bat bihurtu da.

4 Nondik dator dantzaren izena?

Kiosko azpian alkatea zinegotziarekin batera jartzen da eta lehenengo kinto gazteetako mutil batek eta ondoren kintoetako beste batek eskaintzen die dantza. Bikoteka egiten den dantza bat da. Bi dantza egiten dira eta, gero, jota eta porrusalda. Aurten hamasei bikote gara.

5 Nola ikasi duzue dantza? Laguntza izan duzue?

Ahoz aho transmititzen da. Aurteko urteko kintoek kinto gazteei erakusten die, eta kinto gazte horiek hurrengo urtean kintoak izango dira eta, beraz, kinto gazteei erakutsiko die. Gure kasuan, dantza ikusten ikasi dugu eta dantzariak garen dantza hori egiten badakigu. Beraz, besteak beste erakutsi diegu. Aurteko kintadan nahiko dantzari gaude eta denei erakusteko antolatuta gara.

6 Zer suposatzen du zuendako sansaastinetan, Lakuntzako egun berezian, dantza hau egitea?

Tradizioa denez garrantzitsua da kontserbatzea. Berezia. Iaz kinto gazte ginenez dantzatu genuen eta esperientzia berria izan zen. Gu dantzariak gara eta ohituta gaude jendearen aurrean dantzatzeko. Festetan jende asko etortzen da dantza taldea ikustera. Baina kintoak ikustera biltzen den jendea izugarria da. Plazako karpeta beteta egoten da, dantzatzeko tokirik gabe

ibiltzen gara. Gainera, jota eta porrusalda gurekin dantzatzera ere jende asko ateratzen da eta kalejira batekin bukatzen dugu.

7 Nola jantzen zarete?

Baserritarrez jantzen gara. Mutilak baserritar arruntez: maoizko prakak, galtzerdi zuria, abarka beltzak, alkandora zuria, koadrodun zapia eta txapel beltza. Neskak bakoitzak berea eramaten du eta normalean etxean eginak dira.

8 Alkate dantza igandean, 19:00etan, izanen da. Larunbatean parranda egiteko aukera izanen duzue?

Parranda berdina izango da.

9 Nortzuk ospatzen dituzue aurten kintadak?

Lakuntzan kintoak urte horretan hemezortzi urte betetzen dituztenak dira. Aurten kintoak 2001. urtean jaiotakoak gara eta 2002an jaiotakoak kinto gazteak.

10 Zenbat kinto zarete?

23 kinto inguru gara, eta kinto gazteekin batera 30 pasata. Hala ere, guztiak ez dute dantzatzeko. Badira gazteak kintadak ospatzen dituztenak, baina igandean ez direnak egongo ez direlako hemen bizi. Baina kintadetan egongo dira.

11 Noiz ospatzen dituzue kintadak?

Martxoaren 4an eta 5ean. Lehenengo egunean ateratzen gara goizean goiz dirua eske eta gero bazkari bat egiten dugu. Arratsaldean herrian zehar egoten gara eta gauean Tolosako inauterietara joaten gara. Bigarren egunean bazkariak eta afariak egiten ditugu.

Bazkide zorketa

Ibeltzeko sariak

1. SARIA:
EKAINBERRI KOBAZULOAK: 2 SARRERA
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
EREIN: ARGIALETXEAREN LIBURU BAT

2., 3. ETA 4. SARIA:
ARTAZAKO KANPINA: %10EKO DESKONTUA
LACTURALE: ESNEKI LOTEA
GAZTEZULO: 3 HILABETEZ DOAN
EREIN: ARGIALETXEAREN LIBURU BANA









